

EUSKAL HERRIA ETA EUSKARA

KANTABRIAKO FRANTZISKOTAR PROBINTZIAREN ERANTZUNA ETA ERANTZUKIZUNA

Paulo Agirrebaltzategi

“Gure Frantziskotar Probintzia eta Euskara” gaiari buruz go-goetaren bat egiteko eskatu dit *Cantabria Franciscana* aldizkariaren zuzendariak. Gaia erakar-garria da, eta arazoa larria. Arazoaren historia azal daiteke, edota oraingo horren egoeraren irakurketa kritikoa egin daiteke, edota etorkizunerako iradokizunak eman daitezke. Etorkizunari begira zuzendu nahi nuke gogoe-ta hau, bereziki “proiektu probintzialari” begira iradokizun batzuk agertuz; baina aurretik egokia —beharrezkoa— da orain arteko jokabidearen eta gorabeheren ikuspegia edukitzea¹, eta oraingo egoerari begiratzea. Horra artikulua honen nondik norakoa.

Idazlan honetan behin baino gehiagotan aipatuko dut 1979ko Kapitulu probintzialerako batzorde batek prestatuturiko dokumentua eta Kapituluan aurkeztu zutena: “Por una inserción de la vida franciscana en Euskal Herria”. Uste dudanez, gure Probintziaren barrurako euskararen eta

El título de este escrito hace referencia al pensamiento y actuación (“respuesta”) en el pasado, por una parte, y a la actitud y proyecto (“responsabilidad”) en el futuro, de la Provincia de Cantabria, respecto del Euskara como lengua propia de Euskal Herria. Fundamentalmente responde a una solicitud de la dirección de *Cantabria Franciscana*; pero va algo más allá de la reflexión que se me solicitó, y ha resultado un pequeño estudio crítico (positivo y negativo) de la historia de la Provincia a partir de la Restauración y más en particular en los últimos veinticinco años (1970-1995).

Hecho un breve balance de las decisiones tomadas (cuadro sintético en las páginas 29-30, de las medidas adoptadas y de las iniciativas desarrolladas a partir sobre todo del año 1973, cuando el Capítulo Provincial decidió la oficialidad del euskara en la Provincia el escrito toma una perspectiva de futuro, que bien puede ser la del Proyecto provincial que estamos trabajando en los últimos meses.

Situado, pues, el tema del euskara en el Proyecto provincial, el escrito trata de profundizar ante todo en el sentido mismo de ese Proyecto, que está en la base de las decisiones y de las líneas de actuación respecto del tema lingüístico-cultural de Euskal Herria: fundamentalmente encarnación-inculturación inserción-solidaridad (vivencia de la minoridad) en una comunidad, cultural y lingüísticamente minorizada.

Detectada en el pasado una falta de planificación, que llevase a la práctica las propuestas hechas y las decisiones tomadas, se plantea esa planificación al interior de la Provincia y de las casas con el objetivo de la plena recuperación y normalización del euskara (de su conocimiento y de su uso), planificación que esté en la línea —en la primera línea— de la planificación general para la normalización del euskara, que se está realizando desde las instituciones públicas y desde la sociedad.

¹ Asmo garrantziakoa du esku artean, eta abiatua, Joseba Intxaustik, gure Probintziak eta bertako fraideok historian barna euskarari buruz izan dugun jarrera eta egin dugun lana eta gure artean nahiz kanpora begira euskara nola eta zenbateraino erabili dugun aztertuko duena. Probintziatik Euskal Herriari begiratzea baino gehiago izango da nonbait Euskal Herriatik frantziskotar probintziari begiratze-ahalegina. Interesgarria da ikuspegia.

fraideen euskalduntzearen arazori buruz maila ofizialean egin den gogoetarik sakonena eta aberatsena izan da: Herri honetan fraideen aldetik euskaraz gaitzearen eta euskara erabiltzearen alderdi antropologiko, etiko, erlijiozko eta ebanjelikoak aztertuz, hizkuntzaren arazoa kulturaren eta inkulturazioaren barruan ikusiz eta horrek Probintziaren barruti geografikoaren arazoan dituen ondorioei begiratuz.²

PROBINTZIAREN ERRESTAURAZIOTIK

Kantabriako Frantziskotar Probintziak baditu lau mende t'erdi, Burgosko Probintziatik bereizi zenetik (1552). Euskal Herriko hiru "naziok" (Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabak) eta La Montañak (Cantabria) osatu zuten probintzia berria. Nafarroa Aragoirekin geratu zen orduan. Lehenagoko Gasteizko custodia izandakoaren lurraldea hartu zuen gutxi gora behera probintzia berriak. Ezaguna da A. Jeneralak banaketa behartzeko erabilitako arrazoietakoa bat: "diversidad de carácter y lengua".³

Hemeretzigarren mendeko erdi inguruko esklaustrazioaren ondorioz gure Probintzia eta Espainiakoak ofizialki desaginda

**Etorkizunari begira
zuzendu nahi nuke
gogoeta hau, bereziki
"proiektu probintzialari"
begira iraokizun
batzuk agertuz**

eta beraietako etxeak hainbat urtetan itxita edo hustuta egon ondoren berriro ekin zioten sakabaturik bizi ziren gure Probintziako fraideek horren berreraikuntza edo "errestaurazioa" izenekoari. Euskal Herriatik hasitako frantzikotar etxe zaharren irekitze berria edo berrien eraikitzea Gaztela aldera zabaldu zen, esklaustrazio aurretiko Burgosko probintziaren lurraldeetara, alegia. Eta Erriberriko (Oliteko) komentua berriro irekitzearekin (1880), Nafarroa osoa ere Kantabria Probintziaren barrutian geratu zen. Horrela gure Probintzia laster gertatu zen gutxi gora behera oraingo lurraldean hedaturik. Gogoan izatekoa da hemen, Hego Euskal Herriatik abiatu zuela frantziskotar bizitzaren berritzea Ipar Euskal Herrian (Nafarroa Beherean, Donapaleun) 1851n A. Jose Aresok. Erriberriko komentuan bizi izandako Aresok ireki zuen anaiarte berria, Hego Euskal Herriko beste hiru lagunekin (A. Izagirre gipuzkoarra, A. Obieta bizkaitarra eta A. Acebedo arabarrarekin). Frantzia estatu osoan aro berrian eraikitako edo berreraikitako frantziskotar etxeetan aurrena izan zen gainera Donapaleukoa.⁴

Kantabriako Probintziaren errestaurazioaren data ofizialtzat

² Ia 100 orrialde ditu. Lehen partean Euskal Herriaren garaiko egoera eta arazoak (politikoak, sozialak, kulturazkoak, hizkuntzazkoak, erlijiozkoak) azaltzen ditu; bigarrenak arazo horien aurrean frantziskotarrek hartzeko jarrerak aztertzen ditu, Probintziaren historiaren sintesia emanez, euskarari buruz izandako jarrera agertuz eta aurrera begira Probintziaren banaketaren hipotesia aurrean ipiniz. Hirugarren kapituluaren alde aurretik egindako inkestari (euskalduntzeari eta Probintziaren banaketari buruzko) fraideek emandako erantzunen berri ematen du; laugarrenean, erantzun horren balioztapena egiten du. V. kapituluaren aurrerabiderako jokabide eta ekintzarako ildoak seinatzen ditu. Gainera bestelako eranskin interesgarri batzuk ditu txostenak.

³ 1551ko Probintziako kapituluaren erabaki zuen banaketa Ministro jeneralak; 1552an sendotu zuen Julio III.a aita santuak; 1953an berretsi zuen Definitorio jeneralak, "apelando a las anteriores razones de diversidad de carácter y de lengua, a los escándalos producidos, a la falta de paz y al predominio de los cántabros".

⁴ Pio Sagüések dioenez, Donapaleurekin batera Oliteko eta Zarauzko misiolari-kolegioak berritzea zuen asmo Aresok, horrela Euskal He-



Gerra karlisten eta esklaustrazioaren krisi politiko, sozial, kultural eta erlijiozko handiaren ondoren, Probintziaren berreraikuntza eta euskal kulturaren pizkundea bateratsu abiatu ziren, beraz, perspektiba berriekin. Zein leku bete zuen eta zein joko jokatu gure Probintziak pizkunde horretan?

1859. urtea jarri ohi da, Bermioko komentua berriz ireki zutenekoa; baina Bermioko eta Tolosako komentuen irekitze-ixteen gorabeherak alde batera utzirik, esan daiteke gure Probintziaren errestituzioaren urrats finkoak egiten, Zarauzko komentua, bere nobize-etxe eta guzti, ireki zenean hasten direla egiten: 1876an alegia.⁵ Gure Probintziako esklaustrazioa bi gerra karlisten artean kokatzen da, beraz, gutxi gora behera, 1876an amaitu baitzen bigarren karlistada —azpimarratu beharrik ez dago gerra horiek Euskal Herriarentzat eta euskararentzat izan zituzten ondorioak—. 1876an jarri ohi dute, hain zuzen ere, euskal kulturaren eta euskararen pizkundearen abiapuntua ere.⁶ Gerra karlisten eta esklaustrazioaren krisi politiko, sozial, kultural eta erlijiozko handiaren ondoren, Probintziaren berreraikuntza eta euskal kulturaren pizkundea bateratsu abiatu ziren, beraz, perspektiba berriekin. Zein leku bete zuen eta zein joko jokatu gure Probintziak pizkunde horretan?

Gure probintziaren errestituzioiko 75. urteurrena zela eta, argitaraturiko *Homenaje* liburuan artikulua berezia dauka Anjel

Madariagak “Escritores en euskera” izenekoa.⁷ Hainbat autore aipatzen du berak, eta bereziki dozena erdiren baten berri zabalagoa ematen digu. Esklaustrazio aurreko Zarauzko Misiolarien Kolegioko fraideek euskaraz eta euskara lantzeko eginiko lan handiaren ildotik, ondoko gure fraide predikariek ere eurrez erabiltzen zuten euskara beren hitzezko apostolutzan; eta helburu beretsuarekin idazlan garrantzikorik ere produzitu zuten. Liburu berean bada beste artikulua luze bat “Nuestra prensa” izenekoa, Bernardo Aperribayk egina: 7 aldizkari aztertzen ditu —denak 1910etik honantza sortuak—, ikasleek barrura begira ateratzen zituzten “Ensayo” eta “Forua” ere kontutan harturik; azken hauetan ez dakit zenbateraino erabiliko zuten euskara; “Arantzazu” aldizkariak bere “Euskal atala” zuen, non hainbat idazlek beren luma zorrotzen baitzuten, Aperribayk berak digunez.⁸ Autoreak horrelako oharra nola egina duen ikusita, uste izatekoa da, besteetan ez zutela batere edo ia batere euskararik erabiltzen —“San Antonio” La Habanan ateratzen zuten eta “Juventud Antoniana” Madrilén—. Horiekin batera beste horri bat aipatzen du

ri osoa misionatzeko nolabaiteko triangelua eratuz. “El plan del P. Areso era que Saint-Palais fuera como la Porciúncula y cuna, no solamente de Olite, sino también de todos los demás conventos o colegios que se fueran estableciendo en Navarra y España; de esa manera, Olite, Zarauz y Saint-Palais serían tres Colegios para misionar el País Vasco” (“Franciscanos en Olite: hasta 1880”, in: *Cantabria Franciscana. Centenario de la restauración e incorporación del convento franciscano de Olite a la Provincia de Cantabria (1880-1980)*, 147. zenb. (1981 abuztua), 28. or.

⁵ Kontuan izanik, hala ere, Probintziaren eraikuntza juridikoa, Probintzia gisa, handik hamar urtera izango zela

⁶ Ik. *Euskal Herria* (Joseba Intxaustik zuzendua), Lan Kide Aurrezkia-EFA (Jakin), 1984, II, 384. or. Ikus, baita ere, autore berberak argitaraturiko *Euskara Euskaldunon hizkuntza*, Eusko Jaurlaritza, 1990, 118. or.

⁷ *Homenaje a la Seráfica Provincia de Cantabria en el septuagésimo quinto año de su Restauración (1859-1934)*, Aránzazu, 1935, 168-169 orr.

⁸ “Y conste, por último, que “Arantzazu” rinde culto a la milenaria lengua vasca, insertando en sus páginas lindas producciones en prosa y en poesía de nuestros euskerólogos. No es fácil dar con la proporción del texto castellano y vasco; pero teniendo en cuenta la extensión de la Revista, equilibra con discreción ambos idiomas” (326. or.).

autoreak: “Irugarrengoen Irakaslea”, frantziskotar hirugarren-darrentzako hilabetekaria, 1917an hasi eta 1936rarte iraun zuena: euskaraz noski. Gerra ondoren berriro argitaratu zuten orrialde xumea, 1950.ean *Anaitasuna* izena hartu zuen arte.

Hala ere, hemen gehiago dago kigun artikulu luze bat dago *Homenaje*-n, Bernardo Madariagak idatzia, “Nuestros estudios” titulua duena (68-93 orr.). Orrialde trinkoak dira oso. 79. orrialde-tik aurrera gure Probintziako ikasketen barne-antolamendua azaltzen du: batez ere irakasten zituzten gaiak eta programak. Eta bertan seinatzen du, baita ere, euskarak zeukan lekua ikasketak horietan. Hiru zatitan banatzen du azalpena, 25 urteko alditan banatuta: 1859-1884, 1884-1909, 1909-1934.

Lehen aldiari (1859-1884) dago kionez, ikasketen lehen zikloari buruz (humanitateak eta latina, alegia), zera dio: “Lo único que podemos decir es que se limitaba casi exclusivamente al estudio de las gramáticas latina y castellana; el latín se estudiaba bien” (79. or.). Beste zikloetan ez da hizkuntzaren konturik agertzen. Euskararen aipamenik ez du egiten.

Bigarren aldiari (1884-1909) programa, Espainiako Probintzial guztiek erabakia, zehatzago agertzen digu. Latinitateari dago kionez (lau-bost ikastaro): latinarri eta gaztelaniari ematen zien

garrantzi handia ikastaro guztietan... Euskararik ez da agertzen. Nobizetza-urtean ere gaztelaniako eskolaren batzuk bazituzten nonbait —euskararik ez noski— (81. or.). Filosofiako urteetan, oporretan, italiara ikasten zuten nonbait bigarren ikastaroan, eta hirugarrenean, frantsesa... Ez da euskararik agertzen. Teologiako ikastaroetan, hebraiera ikasten zuten (82. or.)... Hala ere, badirudi, autoreak beste nonbait esaten duenez (179. or.), teologian argitaratzen zuten “Ensayo” aldizkarian euskarazko lanak ere agertzen zirela.

Hirugarren aldiari (1909-1934) programa 1905ean Ordenatutako etorritako *Statuta por Studiis regendis in Ordine Fratrum Minorum* dokumentuan dago oinarrituta —1927an zerbait aldatu egin ziren dokumentu horretako punturen batzuk—. Dekretu horretan, ordea, Filosofiako, Teologiako eta Oratoriako bi urteetako ikasketak bakarrik daude araututa, eta ez du hizkuntzei buruz ezer aipatzen, hebraiera ikasteaz aparte.

1927ko *Statuta* zirelakoek, hizkuntzei dagokionez, hizkuntza bizi modernoaren ikasketak bultzatzeaz gain, zera zioten: “praeter studium linguarum supra designatarum (‘latina’ eta ‘patria’, alegia), juvenes excolendi sunt aliis linguis, quae ipsis utiliores habebuntur pro ministerio sacerdotali”. Eta artikulugileak dio: “...y nosotros, además de la lengua francesa, que se estudia du-

rante tres años con una o dos clases semanales en el Colegio Seráfico, y la italiana, que se estudia en las vacaciones de verano durante el estudio de la Filosofía, hemos introducido la lengua vasca, con una clase semanal durante dos años en el Colegio, y durante uno en la filosofía, como una sección de la asignatura de Autores patrios, dividida así en Autores castellanos y en Autores vascos”. Eta jarraian honela oinarritzen du erabaki hori: “Esta medida nos ha parecido absolutamente necesaria en nuestro país, donde nuestros Religiosos han de ejercer su ministerio apostólico casi exclusivamente en vasconce” (90-91 orr.).

Argi dago hemen, euskararen ikasketak apostoluzako tresna izatearen helburu hutsa duela; hori ez da ikasten gaztearen amahizkuntza delako, edota norberaren hizkuntza komunitatearena delako, eta beraz heldutasun pertsonalerako eta komunikazio sozialerako, helburu pastoraletarako baizik. Ideia hau oso sartuta egon da gure buruan eta gure hezkuntza-programetan. Ia bi mende lehenago Kardaberazek zioen teologia dago barruan: “Gure pobretxo on askoren animak salbatzeko, euskarak burua jasotzea Jainkoak nai du”.⁹

Latina eta “lengua patria” dioenean ez da helburu pastoraletan ari, ordea, beste zerbaitetaz baizik. Nahiz eta lengua patria delakoaren eskola-orduak gaztelaniaren eta euskararen artean

⁹ Agustín Cardaberaz, *Euskararen berri onak*, Auspua liburutegia, Donostia, 1964, 64-65 orr. (Lehen argitalpena 1761ekoa da, Iruñan, Antonio Castilla-ren etxean egina).

banatu zituztela esan, euskal hizkuntza arrotzen (erdaren!) artean sartzen da, entzuleen, fededunen hizkuntzatzat hartzen da, eta ez fraidegaien hizkuntzatzat. Arazoa, ordea, euskara euskaldunaren hizkuntz komunitatearen hizkuntzatzat (benetako "lingua patria" gisa) hartzea da. Orduan guztiz bestelako balioztapena hartzen du, antropologikoa eta soziala, aparte konsiderazio pastoral eta teologikoak. Badirudi motibazio instrumentalista horixe izan dela nagusi frantziskotar idazleen artean ere, Madariagak berak esku artean dugun liburu bereko beste artikuluan esaten digunez: "La preocupación que, parece, acuciaba las producciones de los autores franciscanos, lo mismo que de los otros arriba citados (euskal literaturako elizgizon handienak), salvo Larra-mendi, Astarloa, el autor de la 'Apología', y algún otro, no parece haber sido, al menos primordialmente, la patriótica —aunque no la excluían—, ni tan siquiera la

necesidad que siente el artista de la palabra de expresar por ese medio el ideal que bulle en su alma, al sentir en torno de sí el aliento de la inspiración. Dijérase, más bien, que ellos, devoradas sus entrañas por el celo de la casa de Dios, trataban de dar pasto espiritual a los euskaldunes en su lengua. Y a diferencia del gran Etxepare, que en una exaltación patriótica exclamaba con sin igual desenfado: *Heuscara, ialgui adi canpora*, etc. ellos hubieran querido decir más bien: 'Sartu adi eleizara!' O hubieran expresado sus anhelos al igual que una benemérita institución de sacerdotes que radica en Vizcaya: 'Euntes docete euskaldunei euskeraz'".¹⁰ Geroago aipatuko dugu hemen nabarmenduta geratzen euskara lantzearen eta erabiltzearen arrazoi "instrumentalista", apostolutzari begirakoa eta pastoraltzako baliabide eta tresna izatearena soilik.

Aipaturiko *Homenaje* liburua

1935ean argitaratu eta berehala etorri ziren gerra zibileko eta ondorengo urte ilunak, bereziki euskararentzat eta euskal kulturarentzat. Baita Elizan ere, eta, nabari denez, gure Probintzian ere bai. Ez gara hemen urte haietako debekuzko eta susmo txarreko giro lartzaren azalpen handirik ematen hasiko; hala ere, punturen batzuk seinatu beharrekoak dira, geroagoko urteetako jokabideak hobeto ulertzeko. Hasteko, agintari politikoek euskararen kontrako debeku eta aginduei aurre eginez eutsi behar izan zioten gure sermolariek euskarari beren apostolutzalanean. Fraideen barruko bizitzari begira, berriz, gogoan izan behar dira orduko bisitadoreek ezarritako arauak eta debekuak, eta horien ondorioak.¹¹ Gerra zibilaren ondoko urteetan gure Probintzian euskararekiko egon zen giroa hitz laburretan deskribatzen du E. Agirretxek: "Euskara bera eta euskal kutsua zeukan guztia gaiztotzat jota zegoen".¹² Hala

¹⁰ Anjel Madariagaren idazlanak, eta oro har *Homenaje* liburuan fraideek euskaraz edo euskarari buruz egindakoarena kontatzen dutenak, garai hartako baikortasunak hartuta daudela dirudi: 1931-35 urteetako euskarazko irakaskuntzaren eta literatur produkzioaren loraldiak eragindako baikortasunak alegia. Laster etorriko zen ilunaldi hitsa.

¹¹ 1979ko kapitulu probintzialerako batzordeak prestatu eta aurkezturiko txosten marduletik hartzen dugu testu hau (25-26 orr.): "En la postguerra, cada Visitador General daba siempre un toque de atención en contra de toda manifestación de sentimiento vasquista entre los frailes, acusándolo de política condenable. Por ejemplo el 5-9-1943 el Visitador General firmaba la siguiente orden para los centros de formación: "Como todavía el euskera es necesario para el Apostolado, su moderado aprendizaje hay que hacerlo conforme a la norma del ambiente fraterno que debe reinar en la vida común de los frailes. Los que quieren el euskera que tengan su tiempo de aprendizaje de unas dos horas por semana. Que con la ayuda del P. Maestro o de otro fraile profesor cultiven el euskera ya por la conversación ya mediante clases. Pero fuera de esas horas, es contra la ley, la buena educación y susceptible de castigo hablar en euskera, sobre todo en la sala de recreo y en las horas de paseo. Hay que tener en cuenta quiénes tienen que convivir bajo el techo de los estudiantes. Frente a este problema los responsables no pueden hacerse el ciego ni dar libertad por dejadez. Porque comportándose de este modo producirían un daño incalculable al porvenir de la Provincia y a la vida religiosa. La excusa de que el euskera es necesario para el Apostolado —cosa justa en sí misma— se convertiría en señal y actitud de antiespañolismo". Hor aipatzen diren "unas dos horas por semana" euskara ikasi nahi dutenentzat ulertzeko oharra: garai hartan bazeuden koristaduan euskara ikasteko ordu libreren batzuk, nahi zutenentzat antolatua, eta borondatez bakarrik segitzekoak.

Badirudi horri begira aztertu zuela hurrengo definitorioak arazoa. Izan ere, 1943ko abuztuaren 29ko Definitorioaren bilerako aktak dio, ikasleen artean euskararen erabilerari buruz erabakiak hartu direla; baina ez du esaten zeintzuk izan diren erabakiok. Badirudi garai hartan tabu antzeko bihurtua zela euskararen erabilera gure etxeetan. Probintziako artxiboko erreferentzia: J.D., 29/8/1943. Ac.6.lib.3.p.126. Baina aipatzen ari garen txostenak berak dioenez: "En el espíritu que reflejan esas líneas no es extraño que la práctica del euskera y su aprendizaje en los centros de formación sufrieran gran daño. De hecho se llegó hasta a prohibir hablar y escribir en euskera a los estudiantes". Hala ere, ez da ahaztu behar zenbait nagusiren aldean kezka handia sortu zutela bisitadoreen jokabide horiek; eta Probintzia kexatu ere kexatu zela Erromako Kuriaren aurrean, Euskal Herriko egoera ulertzeko bisitadore horien moztasuna salatuz.

¹² Gerra zibilaren ondoko lehen urteak, euskara debekupean egon zenekoak utzi egingo ditugu; baina ez ohar eta aipamen txikitxo bat-

ere, eta giro estu eta hits horretan ere, bazen erresistentzi gunerik, Agirretzek berak orrialde horietan kontaktzen digunez: gogoratzekoa da bereziki Arantzazuko teologoen BAI taldea.¹³

Arantzazu aldizkaritik bertatik euskarazkoa saila desagertu egin zen; 1943an idazlanen bat edo beste sartzen hasi ondoren, berriro ixildu behar izan zuen euskarak, agintarien debekuarengatik, 1945era arte. Gerra aurreko fraidegaiantzako euskara-eskolak ere desagertu egin ziren gerra ondoko urte horietan Arantzazuko kolegioan, 1946ra arte.

APOSTOLUTZAREN ETA KULTURGINTZAREN ARTEAN

1945-1970

Gerra ondoko itolarri eta tunel ilunaren ondoren, 1945-46 aldera hasi zen irekitzen euskaldunentzat (fraideentzat eta besteentzat) lehiotxoren bat edo beste,

arnas apur bat hartu ahal izateko. Gure Probintziari dagokionez, bi datu txikitxo emanak ditugu. Askoz adierazgarriagoa izan zen seguruenik *Arantzazuko Amaren Egutegia*-ren agertzea 1946an bertan —1947ko izan zen lehen egutegia—.¹⁴ Jose Antonio Garateren obra benetan ausarta izan zela uste dut, eta gerrako eta gerra ondoko euskara idatzizko basamortu hartan, lehen lore ederra izan zen, esperantzaren suspergarriri. Benetako desafioa izan zela uste dut. Gainera esan beharra dago, tresna edo baliabide pastoral hutsa izatea gainditurik, bestelako adiera zuela egutegiaren obrak: linguistiko-kulturala, alegia, euskarazko lehen komunikabide xumea herritarrentzat, ez zuzenean apostolutzak-helburuko. Seguru asko euskararentzat orain dela bost urte *Euskaldunon Egunkaria* kaleratzeak adinako garrantzia izan zuen une hartan *Egutegia* ateratzeak Egunkari txikitxoa da horrelako egutegia; egutegi handia den bezala egunkaria.

Garbi dago, urte horietan

Argi dago hemen, euskararen ikasketak apostolutzako tresna izatearen helburu hutsa duela; hori ez da ikasten gaztearen amahizkuntza delako, edota norberaren hizkuntz komunitatearena delako, eta beraz heldutasun pertsonalerako eta komunikazio sozialerako, helburu pastoraletarako baizik

zuk egin gabe. Adierazgarria da *Arantzazu* aldizkariak ere bere euskarazko lankidetzak kendu egin zituela, eta erdarazko bihurtu zela hutsik; zehazkiago esanda: 1937ko abendura arte euskarazko lankidetzak bazeuden aldizkarian; gero 1943ra arte ixildu egin zen euskara; urte horretan agertu zen berriro, baina atzera debekaturik egon ondoren, 1945an itzuli ahal izan zuen. E. Agirretzek ematen duen lekukotasuna jasoko dut, gerra ondoko urteei buruz esaten dituen hitzen batzuk jasoz: “Euskal Herrian anaiarterko gudaketaren ondorengo urteak oso tristeak izan ziren. Madrid nagusi gaizto eta guztiz gogorraren menpean erremediorik gabe bizi beharra geneukan. Ikara zebilen ugari gure artean. Baita komentuetan ere. Kanpotarrak —eta etxeko kanpotarzaleak— egin ziren gure bazter eta pauso guztien gidari eta epailari. Euskara bera eta euskal kutsua zeukan guztia gaiztotzat jota zegoen” (*Aldi hartan eta Arantzazuren inguruan*, EFA, 1995, 39. or.). 1979an idatzitako beste txosten batean honela dio: “Euskaltzale izandako fraide ikasleak oso gogor hartu izan ziren”. Hainbat fraide euskaltzale Euskal Herriatik kanpoko komentuetara baztertu zituzten, zenbait aldiz horren arrazoia aitortu ez bazuten ere. Bestalde denok dakigu euskal abertzaletasun-kutsuko eta euskaltzaletasun-kutsuko liburu asko ezkutatu egin behar izan zituztela orduan; areago, horrelako hainbat erre egin zituztela fraideen artean ere.

¹³ BAI aldizkaritxoa ere bazen, taldekoek euskara lantzeko erabiltzen zutena, teologiazko eta erlijiozko gaiak bakarrik erabiliz. Agirretzek honela amaitzen du aiapturiko bere oroitzapen-liburuko VII. kapitulua, gerra-ondoko urte haiei buruzkoa eta “Ameskabi” izenpekoa: “Amets haren haziaren fruituak dira Salbatore Mitxelenaren idazlanak, gaur Euskal Herriko idazle iaio diren zenbaitzuen lan asko, eta batez ere, Arantzazun eta Frantziskotarren inguruan euskararen alde gerora landu eta sendoki zabaldu izan den ahalegin asko. Hamaikatxo orrialde idatzi zen gure lagunarte hartan orduan. Beharbada hutsa balioko zuten eta ez dira inoiz argitaratuko. Baina lurpean gelditzen den ariluak ere balio du bere ganean jasoko den etxaldearen oinarriari zerbait gogortasun emateko” (43. or.).

¹⁴ 50 urte betetzen dituen honetan obra txiki-handi horri zor diogun omenalditxoa ere izan nahiko luke idazlan honek. Bihoakie gutxienez hemendixe eskerron- eta zorion-hitz xumea hori asmatu eta abiaitu eta hainbat urtetan burutu zuen Joxe Antonio Garateri eta gaur arte tinkotasun eta iraunpenez iraun arazi diotenei.

Kantabriako frantziskotarrek euskarekiko izan duten (dituzten) jarrera(k) aztertzea, euskararen eta euskal kulturaren alorrean bete duten lekua azaltzea, euskarazko apostolutzan egin duten lanaren neurria hartzea, gure etxetako komunikazioan euskararen erabilera zenbatekoa izan den zehaztea eta gure kanpoko kolegioetan nahiz fraidegaien hezkuntzan euskarak izan duen lekua zeharo agertzea ezinezkoa dela artikulatu honetan. Ez da gainera hori helburua. Alor horietako “puntutxo” batzuk —euskararentzako aldekoak nahiz aurkakoak— bakarrik nabarmenduko ditugu hemen. Burututako gogoeta, izandako eztabaidak, hartutako erabakiak, ezagutzen nahiz erabileran egindako urratsak... Batez ere euskararen irakaskuntzari eta euskarazko kultur produkzioari buruzkoak izango dira horiek.

Aurreko urteetan bizi izandako euskararen aurkako debekugiroak eta goitik (agintari politiko nahiz erlijiosoengandik) etorritako arau eta dekretuek eragin handia izan zuten noski fraideen kontzientzian, kontuan edukiz gainera anaiarteko bizitzaren eta karitatearen aurkakotzat jotzen zutelako euskara erabiltzea komunitatean, eta hori “jasan” egiten zela kanpokoei begira bakarrik,

apostolutza-arrazoiengatik.

Giro horretan, hain zuzen, are adierazgarriagoak eta meritu handiagokoak gertatu ziren euskarazko literatura sortzeko eta kaleratzeko eta pentsamendua ere euskaraz lantzeko ahaleginak zenbait fraideren eta talderen aldetik. Horietan aurrenik eta bereziki aipatzekoak dira S. Mitxelenaoren obrak *Arantzazu: euskal sinismenaren poema* (1949) eta *Ama semeak Arantzazuko kondairan* (1950)¹⁵, Arantzazuko argitaltetxeak argitaratuak. Azken datu hau nabarmentzekoa da, bakarreko edo taldeko horrelako ahalegina frankotiradore soilena ez zela ezagutzeko. Hala ere, gutxiengoaren onarpena eta ezagutza besterik ez zuen lan horrek garai hartan fraideen artean. Zortzi urte geroagoa ekingo zion, hain zuzen, teologo-talde batek *Jakin* aldizkaria argitaratzeari 1956an; erdi-ekzutuan hasi arren eta nagusi guztien oniritzia ez bazuen ere, beste batzuren bedeinkazioa izan zuen hasieratik, eta laster irabazi zuen gehienen begirunea.¹⁶ Gerora euskarazko kultur aldizkari nagusienetako bihurtu zen *Jakin*, alegia.

Dena dela, euskarazko literatura eta pentsamendu-produkzioa ekimen pribatua izan zen funtse-

an; besterik zen fraidegaiei euskara irakastearen arazoa. Arrazoi pastoral hutsengatik, edota bestelako arrazoi antropologiko eta psikologikoengatik, nahiz arrazoi nazionalengatik, Probintziako agintariek eta hezitzaileek gainditu ahal izan zituzten goiko agintarieek gerra ondoren ezarritako muga zorrotzak. Garai hartan fraidegai ginen euskaldun guztiok dakigu, nola galtzen genuen gure euskaraz hitz egiteko ohitura kolegioan, eta nola gertatu ohi ginen euskara erabat galtzeko arriskutan ere.¹⁷

Gorago esan dudanez, 1946an euskarazko eskolari lekua egin zioten Arantzazuko kolegioan behintzat. Hori zabalduz joan zen, baina egoera oso larritan nonbait, plan zehatzik eta material egokirik ezean. Arazo horiei erantzuteko, 1953an Probintziako lektore, irakasle eta hezitzaileen arteko bileran euskarak fraidegaien heziketan eta irakaskuntzan eduki behar zuen lekua onartuta, horrek zituen arazoak eztabaidatu zituzten; eta hurrengo bilerarako txosten berezia prestatzea eskatu zien garai hartan Arantzazun eta Foruan euskara irakasten zuten irakasleei (L. Villasante, K. Iturria eta I. Berriatuari). Hurrengo urteko bileran, L. Villasantek irakurri zuen pres-

¹⁵ Urte berean argitaratu zuten Orixeren *Euskaldunak* poema handia. Anjel Madariagak Errestaurazioko lehen 75 urteetako euskal idazleen zerrenda egin zuen bezala, hemen ere egin daiteke gerra ondokoena; eta askotxo eta onak aterako lirateke. baina ez dagokigu orain hori egitea. Norbanakoen jarrera eta lanak baino, aipagarriak eta adierazgarriak izanda ere horiek, Probintziako taldeen lana eta mugimendu kolektiboa dagokigu bereziki aztertzea hemen.

¹⁶ Euskal kulturaren historian urte mugarriztat hartu ohi da 1956a (Ik. *Jakin* 21, 1981, 34. or.). Aldizkaria sortu zen urte berean egin zuen Euskaltzaindiak “Euskaltzaleen Biltzarra”, garrantzizkoa, Arantzazun (Iraila, 14-16), non eskuhartze bizia izan baitzuten L. Villasantek, B. Gandiagak eta F. Mendizabalek. Urte berean ospatu zuten Parisen “Euskal Batzar Orokorra”, orduko atzerriko Euskal Gobernuak antolatua.

¹⁷ Badira anekdotak gure fraideen artean, nola zeuden fraidegai batzuk, urteak joan eta urteak etorri, lagunen artean guztiz erdalduntzat hartuak, nahiz eta etxetik euskaraz normal jakin, giro hartan lagunen artean sekula euskaraz egiten ez zutelako. L. Villasantek berak aitortu didanez, horietakotzat eduki zuen bera ere karrerako bere hainbat ikaskidek.

taturiko txostena, “El estudio del euskera en nuestra carrera” izenekoa.¹⁸ Euskararen irakaskuntzarako arrazoiak eta arazoak agertzeaz gain, horren metodoa eta programa azaltzen ditu txostenak, eta horretarako bibliografia laburra eskaintzen. Arrazoen artean badago bat, hezkuntzaren ikasteari berari buruzkoak gainditzen dituenak, eta fraideen bizitzan euskarak behar duen lekuaz diharduena: “El desideratum a que debemos tender en este punto es a que todos los hijos de la Provincia de Cantabria lleguen a dominar la dos lenguas y las dos culturas, la castellana y la vasca. Debemos aspirar a ello no sólo por razones prácticas del ministerio, sino aun también por razones de convivencia, motivos de orden psicológico, afectivos, etc.” (139. or.). Eta aurreraxeago dio; “O sea, que no se aprende a hablar una lengua sino hablándola. Por tanto, deberá fomentarse en el Colegio y a lo largo de toda la carrera y de la vida religiosa el uso vivo del euskera. Las lenguas vivas son, primariamente, para ser habladas” (140. or.). Nabarmenezkoa Villasantek erabiltzen dituen arrazoi antropologikoak fraidegaien heziketan euskara irakasteko, eta ez arrazoi pragmatikoak edo instrumentalak (pastoralak) bakarrik.

Gogo hori oso urruti zegoen betetzetik urte haietan gure Probintzian eta Euskal Herriko

frantziskotar etxeetan. 1979ko Kapituluako txostenak (27. or.), honela dio 40’ eta 50’ hamarkadei buruz: “... el euskera no tiene cabida en la vida interna de los frailes. Sigue siendo instrumento útil sólo para fuera del convento”. Dikotomia hori barru-barruan bizi zuen hainbat fraidek; eta euskararen inguruko gogoeta eta eztabaida bakoitzean nabarmenduko da hori gainditu beharra, arrazoi pastoralen (pragmatiko eta instrumentalen) ikuspegia gaindituz.

Gogoetaldi garrantziko horietako bat izan zen 1960an Arantzazun egindako kongresua, Probintziaren errestituzioaren ehungarren urtea betetzean, “Congreso de literatura y predicación franciscana en euskera” izenpean.¹⁹ L. Villasantek honetara bildu zituen kongresuaren egitekoak, horren programa aurkeztean: “Aztertu zer moduzko giroa dagoan gure artean euskerarentzat eta giro ori sendotzeko dauden bideak. Kontzientziako esamiña bat bear du izan, pultzu artze bat gure Probintziari euskera-kontuan. Beste itzez esateko, aztertu zer egin degun, zer egiten degun orain, zer egin dezakegun eta egin bear degun euskeraren alde. Gure utsuneak, gure akatsak, utsegiteak, denak gezurrik, estalgarririk eta itxurakeririk gabe azaldu eta adierazi. Eta etorkizunari begiratu, artu bear liraken zuzenbideak finkatu eta abar”.²⁰

¹⁸ Ik. *Cantabria Franciscana*, Urria 1954, 38-47 orr.

¹⁹ Arantzaun egin zuten kongresua, 1960ko abuztuaren 6-12 egunetan, eta mendeurrena ospatzearen egindako lau kongresutan azkena izan zen. Horren akta eta hitzaldiak *Cantabria Franciscana*-ko zenbaki berezi batean daude bilduta. Kontuan eduki behar da urte horretantxe sinatu zutela 339 euskal apaizek beren idazkia, Espainiako apezpikuei, nuntzioari eta Vatikanoko estatu-idazkariari bidalia: bertan euskararen zapalkuntza salatu zuten, besteren artean.

Kongresuaren programak gainditu egin zituen tituluak adierazten zituen edukiak eta alorra, arazo linguistiko eta soziolinguistikotan ere sartuz. Euskararen aldeko “razones humanas”, “razones intelectuales” eta “razones prácticas” azalduz ekin zioten kongresuari, I. Omaetxebarriaren hitzaldiarekin —“Euskera ‘valore’ bat ote da, gaur egunean ere, guretzat?” galdetuz aurkeztu zuen berak hitzaldia—. ²¹ B. Gandiagak aurkeztu zuen txostenak, berriz,

Giro horretan are adierazgarriagoak eta meritu handiagokoak gertatu ziren euskarazko literatura sortzeko eta kaleratzeko eta pentsamendua ere euskaraz lantzeko ahaleginak zenbait fraideren eta talderen aldetik.

euskararen aldeko arrazoi linguistiko, antropologiko, kultural, teologiko eta eklesialak bildu zituen, era guztietako autore hainbaten aipamenak eta arrazoiketak ekarriz. Eta predikuan euskara erabiltzeaz gain —horri begira?—, irakaskuntza (kolegiokoa, fraidegaiena eta kanpokoentzako), prentsa, irratia eta argitalpenak (liburugintza), liturgia eta elizkizunak jorratu zituzten, horietan euskarak zituen lekua eta arazoak aztertzeko; komentueta-ko elkar-bizitzan euskarak zuen eta behar zuen erabilera ere ukitu zuten —“Komentuetako bizitza erderaz egin izan da beti: irakurtzeak, komunidadeko aktoak, elkarren arteko jardunak”, dio Villasantek A. Madariagaren hitzaldia aurkeztean—. Azterketa soziolinguistikotan ere murgildu zen kongresua, hitzaldi banatan baserrietan eta ingurune industrialduetan eta herri handietan euskarak zituen egoera eta arazoak jorratzean; areago, Kandido Izagirrek, berak egiten ziharduen lanaren ildotik, eginkizun filologiko-linguistikoa proposatu zuen herrietan ibiltzen ziren sermolarientzat: “Lo que los predicadores podrían contribuir a los estudios vascológicos” zuen titulua hitzaldiak.

Kongresuak bere “erabakiak” ere hartu zituen: hamar, hain zu-

zen ere. Fraidegaiei euskara irakastea, komentuetan euskarazko liburuaren irakurketa sustatzea, Segura eta Arrate irratietan euskaraz egiteko lana, euskararen erabilera kanpoko kolegioetan: gai horiek eta beste zenbait daude jasota erabakietan. Bederatzigarrena, ordea, hitzez hitz aldatuko dut hona: “Gure barneko kolegioetan euskerari beste edozein asignaturei ainbat ardura emateko eskatzen zaie gure estudio-nagusiei erdi-notan edo ‘nota media’-n aintzat artuz”. ²² Bada hamargarren bat, fraide helduentzako euskara ikasteko edo lantzeko ekimenez diharduena: “Oraindik ez dauzkaten gure komentuetan euskal eskolak idikitzen saiatu ditezela eskatzen zaie bertako nagusiei; eta jarrita dauzkaten zorionik beroenak Biltzar osoaren partetik”. ²³ Euskal gizartean gerora etorriko den helduen euskalduntze eta alfabetatze mugimenduari aurea hartzen diote hor nonbait.

Zalantzarik gabe, eduki aberratseko kongresua izan zen hura; baina ondoriorik izan ote zuen? Hurbildik hura bizi zutenek esan didatenez, fraide askok hartu zuen parte horretan, eta kontzientziak suspertzen eragin handia izan zuen; eta ondorio praktikoren batzuk ere ekarri zituen berehalakoan-edo, esate ba-

²⁰ Ospaturiko kongresuaren berri ematean, batzorde antolatzaileak honela justifikatzen du nolobait hori egin izana: “Es un hecho que nuestra Provincia, tanto histórica como actualmente, tiene sus más firmes raíces en el país vasco y que la mayoría de sus miembros son hijos de este país, que conserva como uno de sus valores más preciados el euskera. Es innegable también que esta lengua es un instrumento imprescindible para nuestro apostolado. Además, la Provincia posee una tradición y un historial brillante por lo que al cultivo del euskera se refiere”.

²¹ Kongresuaren sarrerako hitzaldiak, berriz, “euskera gordetzen eta indartzen” ahalegintzeko arrazoi teologikoak ematen ditu, besteren artean, eta gure elizetan erabiltzeko “euskeraren eskubideak” aipatzen ditu.

²² 326. or.

²³ 316. or.

terako Arantzazuko kolegioko euskararen irakaskuntzako eskola-orduen kopurua handitzea. Hala ere, kongresuak proposaturiko eginbide praktikoak ez ziren benetako erabakiak izan; nagusiei, arduradunei edo fraideei oro har egindako eskaeren forma zuten. 1970-80 hamarraldira arte itxoin beharko da, kongresu horretan ereindako hainbat ideia heltzeko eta horiei oratzeko, Probintzian zabaldu eta nolabaiteko onarpen ofizialeko izateko, eta horietatik fraideen bizitzarako eta Probintziaren funtzionamendu ofizialerako ondorio praktikoak ateratzeko.

Bitartean, ordea, euskararen eta euskal kulturaren inguruko mugimendu garrantzizkoa eratua zen *Jakin* aldizkariaren inguruan: Probintziako fraide gazteak ziren horren eragileak eta Arantzazu zegoen erdigune —aldizkariaren zuzendaritza 1968an atera zuten Arantzazutik Donostiara—. Euskararen ikuspegi instrumentalista gainditurik, zentzu kulturala zuen hartua mugimenduak. Hain zuzen ere, 1970ean, aldizkaria debekatuta zegoelarik, hasi zen *Jakin* talde sendoagoa eratzen, liburuak eta gero berriro aldizkaria argitaratzeari begira.

Horrekin batera beste euskarazko aldizkari, eta horien inguruko taldeak daude eratuta Probintziako fraideen inguruan garai hartan, gutxi gora beharra 1960-tik aurrera. Urte horretan sortu zuen *Goiz-Argi* aldizkaria Joxe

Garatek (hasieran *Arantzazu*-ren eranskina, eta gero autonomia). 1950ean hirugarrendarrentzat, *Irugarren goen maixua* orriaren jarraipen gisa, sorturiko *Anaitasuna* aldizkariak (gipuzkeraz), bizkaierazko edizioa edukiko du 1953tik aurrera. Geroago, berriz, informazio orokorreko aldizkari bihurtu zen azken hori. Imanol Berriatua izan zen urte luzetan horren sustatzaile, beste hainbat fraide eta sekularren artean. — 1982an desagertu zen, Imanol bera 1981eko irailaren 15ean hil eta handik hilabete gutxira—.

OFIZIALITASUNA: ELEBITASUNA ETA “EUSKALDUNTZEA”

1970-1995

1970eko Kapitulu probintzian ez zen euskara (edota euskal kulturaren gaia) ukitu, akordioetan behintzat. Baina 1970ekoa da erabaki bat aski esanguratsua Probintzian, euskarari dagokionez: Probintzialak (Definitorioak?) hartua. Ordura arte *Jakin* zerbait pribatua zen, nahiz eta onartua egon nagusien aldetik. Urte horretan nagusiek beraiek erabaki zuen taldea berri eta indartzea, eta Joseba Intxausti Bartzelonatik etorri berriari eskatu zion taldea berreraikitzeo. 1973ko Kapituluaren erabaki berezi bat hartuko du Kapituluak *Jakin* taldeari buruz.²⁴ Aurrerantzean Probintziaren barruko talde ofiziala izan gabe, eta bere auto-

nomia gordez, horren euskarritza ofiziala edukiko du, eta nolabait horren euskalgintza-erreferentzia nagusi bihurtuko da. 1972an egin zuen taldeak bilera garrantzizkoa Donapaleun, non *Jakin*-en ondoko urte luzetarako bere euskalgintzako eta kulturagintzako bidea eta programa markaturik utzi baitzituen.

Dena dela Probintziaren barruko dinamikari, euskararen eta euskalduntzearen ingurukoa, ez dio urte horietan *Jakin*-en taldeak eragin —hori gizartera begira ihardun da Probintziara begira baino askoz gehiago—. Probintziaren barruko gogoeta egin eta erabakiak hartu, arazo horri buruzkoak, Definitorioaren, batzordeen eta kapituluaren barruan egin dira batez ere. Anai-talde edo anaiarte batzuren ekarpenak garrantzizkoak izan dira noski —gero aipatuko ditugu 41 fraideko Arantzazuko libera (1973), Arrasateko anaiartearen eskabidea (1976), Segurako anaiartearen proposamena (1988)—. Horregatik 1973-1994 bitarteko Kapituluaren erabilitako txostenen, hartutako akordio edo erabakien eta horietarako erabilitako motibazioen taula bat eskaintzen dugu, bi alorren ingurukoena bereziki: 1. Euskararen ofizialtasuna; 2. Fraideen (edo fraidegaien) euskalduntzea. “Justizia eta Bakea” batzordeari buruzko erabakien berri ere emango dugu, euskalduntzearen alde motibazio hori erabili izan delako.

²⁴ “El Capítulo ve con buenos ojos la conveniencia de la integración del grupo JAKIN en la Fraternidad de Tolosa, dejando en manos del Definitorio las posteriores concreciones sobre la forma de integración, en comunicación con la Fraternidad de Tolosa” (Proposiciones: d. Tema vasco, 5. zenb.)

Kap. Urtea	Kapitulu aurreko galdeketa eta txostenak	Euskaren ofizialtasuna, gaztelaniarekin batera	Fraideen eta fraidegaien euskalduntzea	Erabakien saila	Erab.-zenb.
1970*					
1973	<ul style="list-style-type: none"> Galdeketa 41 fraideren erantzuna Galdeketari: "Euskal Frantziskotar erlijiosoen batzarra" 	<p>Euskara ofizialtzat hartu:</p> <ul style="list-style-type: none"> — Idazki- dokumentu ofizialak bi hizkuntzetan — Anaiarte bakoitzak erabaki zein eta nola izango den ofiziala 	<p>"Que se considere una finalidad educativa la capacidad de entender, leer y hablar y escribir en euskera, para los nacidos dentro del País Vasco".</p>	<p><i>Tema vasco</i> (proposizioa)</p> <p><i>Tema vasco</i> (proposizioa)</p>	<p>d. 1, 2,4</p> <p>d. 3</p>
1976	<p><i>Elebitasuna</i></p> <ul style="list-style-type: none"> Inkesta: "Pastoral vasca" Txostena: "Estudio de la encuesta sobre "Pastoral Vasca en la Provincia Franciscana de Cantabria" (F. Torrealday) 	<p>Ofizialtasunaren onarpena: b, 1), 2)</p> <ul style="list-style-type: none"> - Dokumentuak bi hizkuntzatan - Anaiarte bakoitzak erabaki elebitasunaren barruko aplikazioa 	<ul style="list-style-type: none"> Euskara-gaitasun beharraren printzipioa: ulertu, irakurri, mintzatu eta idatzi "E.H.an bizi nahi dutenentzat" Alfabetatzearen oniritzia. Jakin antolatzaile 	<p>(akordioak)</p> <p><i>Elebitasuna</i> (akordioak)</p> <p><i>Ondorioak</i></p>	<p>eta 3)</p> <p>b, 4)</p> <p>12</p>
1979	<ul style="list-style-type: none"> Inkesta: Euskalduntzea eta Probintziaren banatzea Txostena: "Por una inserción en la vida franciscana en Euskal Herria" 	<p>1976ko puntuen berrespena</p>	<ul style="list-style-type: none"> 1976ko printzipioaren berrespena Probintzialaren eta Definitorioaren esku utzi aurrera eramatea Euskalduntzeari buruz zehaztasunak: a) neurri instituzionalaren printzipioa, b) hezitzaile eta irakasle elebidunak, c) Eliz ikasketak euskaraz 	<p><i>Eskualdeak:</i> b) <i>Euskal-duntzea</i></p> <p><i>Eskualdeak:</i> b) <i>Euskal-duntzea</i></p> <p><i>Eskualdeak:</i> b) <i>Euskal-duntzea</i></p>	<p>11</p> <p>12</p> <p>13</p>
1982		<p>1976 eta 1979ko erabakiak berretsi eta Estatutuetan sartzea erabaki</p>	<ul style="list-style-type: none"> 1976 eta 1979ko printzipioa berretsi eta Estatutuetan sartzea erabaki Probintzial-Definitorioei: Hobekiago eta efikazia gehiagorekin erabakiak betetzeko lankidetzat instituzionala <ul style="list-style-type: none"> - 1979ko b) eta c) puntuak berretsi - Otoitzerako euskarazko materiala prestatu Anaidiei eta anaiei: euskara ikasteko eta euskal kultura lantzeko bideak zehaztea eta animatzailea izendatzea 	<p><i>Probintz. Erregimena</i></p> <p><i>Eskualdeak:</i> b) <i>Euskal-duntzea</i></p> <p><i>Eskualdeak:</i> b) <i>Euskal-duntzea</i></p>	<p>5</p> <p>26</p> <p>27</p>

1985		Estatutueta 2,2 artikulua gogoratu	<ul style="list-style-type: none"> • Estatutueta 2,2 artikulua gogoratu • 1982ko 26 eta 27 puntuak hitzez hitz hartzen ditu kapituluak berriro 	<i>Eskualdeak:</i> <i>b)Euskal-duntzea</i>	11 11-12
1988	Segurako Anaidiaren txostena	Estatutueta 2,2 artikulua gogoratu	<ul style="list-style-type: none"> • Estatutueta 2,2 artikulua gogoratu • “Justizia eta Bakea” batzordea sortzeko proposamena • Aurreko urteetako erabakiak betetzeko zailtasunak; eta inkulturazioaren eta herrian txertatzean arazoak, justizia eta bakearen arazoak • Arrazoi horien gain 1985eko 11-12 zenbakiak berresten dira • Heziketaren arduradunei: Fraidegaien euskalduntzea bideratzeko eskabidea... Arrazoak: fedearen inkulturazioa eta justizia eta bakea 	<i>Probintz. Eskualdeak</i> <i>Anaidi-bizitza</i> <i>Probintz. Eskualdeak</i> <i>Probintz. Eskualdeak</i> <i>Heziketa</i>	3, a) sarrera 11 3, sarrera 3, a) 1)-4); 3, b) 18
1991	Batzorde bereziaren txostena Hezkuntzako Idazkaritzaren txostena		<ul style="list-style-type: none"> • “Justizia eta Bakea” batzordea erabaki, “ahal bada behintzat” • Fraidegaien euskalduntzeari buruz 1988ko kapitulukoa errepikatzen da 	<i>Anai Biziera</i> <i>Hezkuntza eta Ikasketak</i>	11 17
1994	“Justizia eta Bakea” Batzordearen txostena Hezkuntzako Idazkaritzaren txostena		<ul style="list-style-type: none"> • Estatutu Partikularretako 5, d) gogoratzen du, inkulturazioaren izenean euskal eskualdean bizi direnak “euskaraz ulertu, irakurri, hitzegin eta idazteko” gaitzeko ahalegina eskatuz • Fraidegaien euskalduntzeari buruz 1988ko eta 1991ko kapitulueta 2koa errepikatu 	<i>Justizia eta Bakea</i> <i>Hezkuntza eta Ikasketak</i>	36 17

* Goian aipatu denez, Kapitulu horretarako JAKIN-en bere estatusari buruzko txosten bat eraman zuen; lehen aldiz tratatu zuen Kapituluak euskalgintzan eta euskal kulturgintzan espezifikoki ziharduen talde bati nolabaiteko status formala ematea. Baina gainerantzean euskararen gaia ez zen ikutu kapitulu horretan.

Probintziaren ibilbide kolektiboari begira bi fase luzeraz berdintsutan banatuko dugu 25 urteko aldi hau: 1) 1970-82 urteetako erabaki- eta ekimen-fase dinamiko; 2) 1982-95 urteetako gelditasun- (geldotasun-?) eta motel-tasun-fasea. Horretarako arrazoiak aski argi agertu zaizkigu gaineko taula horretan. Dena dela, aurrenekoa termino positibotan eta bigarrena negatibotan eman baldin badut ere, seguruenik bietan nabarmendu beharko ditugu eginiko aurrera-urratsak, baina era berean bietako mugak eta akatsak seinalatu beharko ditugu.²⁵

ERABAKIEN ETA EKIMENEN FASEA (1970-1982)

Eremu politikotik begiratuta, gertakari handiek markatu zuten Euskal Herrian fase hori: Burgoiko epaiarekin hasi zen (1970); Francoren heriotza (1975); Espainiako Konstituzio berria, Euskal Herriko hiru herrialdetan ez onartua (1978); Gernikako autonomi estatutua indarrean sartzea (1979); Nafarroako Foru-hobekuntzaren legea ezartzea (1982).

Dena dela, ingurune politikoaz gain, Probintziaren urte horietako gogoeta eta jokabideak euskararekiko testuinguru zabalagoan (sozialean, Elizarenean, erlijiosoen munduarenean) kokatu behar direla uste dut.

Ingurune eta dinamika sozialari dagokionez, lau gertakariok aipatu besterik ez dut egingo 70.eko hamarraldian: Ikastolen indartzea,²⁶ AEKren zabaltzea,²⁷ UEUren abiatzea (1973), euskal unibertsitatearen aldeko mugimendua,²⁸ “Bai euskarari” ekintzaldi erraldoia, Euskaltzaindiak antolatua (1978). Ez dago zalantzarik euskararen suspertze-mugimendu sozial indartsuaren adierazgarri direla horiek eta bestelako gertakari sozio-kultural hauek: Euskal kantaren indartzea,²⁹ euskarazko liburugintzaren gorakada,³⁰ euskara batua lantzeko ahalegina,³¹ UZEIren sorrera (1977) Jakin taldearen ekimenez, etab. Probintziako hainbat fraide, testigu ezezik, partaide izan zen horietako fenomeno sozial eta kultural askotan.

Erlijiosoen munduaren testuinguruari dagokionez, bi fenomeno aipatu behar dira: a) Loio-

lako bilerak, euskal erlijiosoen artekoak, eta horiek piztu zuten dinamika; b) Euskal Herriko Probintzialen arteko bilera, mintegi eta erabakiak. Zalantzarik gabe elkarren eragina dute horiek. 1972an hasi ziren Loiolako erlijiosoen arteko bilerak, Euskal Herriko erlijiosoen arteko gogoe-ta eta eztabaida izan nahi zutenak, erlijiosook Euskal Herrian txertatzeari begira, alor linguistikoan, kulturean eta sozialean. Eujenio Agirretxe izan zen Bartzar horien eragile nagusietakoa, Jose Luis Zinkunegi jesuitak lagun zuela; eta frantziskotar antitez hartu zuen horietan parte. 1977ra arte urtero egin ziren bilerok, beti Loiolan; hurrengo urtean, berriz, esan daiteke kongresu berezi batez burutu zela sei urtetako gogoetaldia; Donostian egin zen hori, “Erlijioso bizitzaren euskal astea” izenpean. Adierazgarria da frantziskotarren (eta gure Probintziareko fraideen) partaidetza kongresu horretan: Sarrerako hitzaldia Manex Erdozainzi Ipar Euskal Herriko frantziskotarrak egin zuen; eta Iñaki Bereziartuak, Sabino Ayestaranek eta Paulo Agirrebaltzategik hitzaldi bana eduki zuten.³² Bigarren kongresu bat ere izan zen

²⁵ Bi alditako banaketa horixe egiten du F. Placer-ek Euskal Herriko Elizaren azken hogeituro urteotako historia egitean, artikulu hau argitaratu orduko JAKIN aldizkariak argitaratua izango duen zenbaki batean.

²⁶ 1970eko 20.000 ikasle ingurutik 50.000 bat ikasle edukitzera pasa ziren ikastolak 1982an. EAEko gobernu autonomoarekin euskararen eta euskarazko irakaskuntza eskola publikoan sartzan hasi zen 1980tik aurrera.

²⁷ 1976-77 ikasturtean % 300 igo zen AEKn euskara ikasteko ikasle-kopurua.

²⁸ Ik. “Euskal Unibertsitatea”, *Jakin* aldizkariaren zenbaki monografikoa (1977, Urtarrila-martxo).

²⁹ Ik. “Euskal kanta berria”, *Jakin* aldizkariaren zenbaki monografikoa (1977, Urria-abendua).

³⁰ 1980an hiru aldiz liburu gehiago argitaratu zen euskaraz 1970ean baino.

³¹ 1968an egin zuen Euskaltzaindiak bere kongresua Arantzazun, euskara batuaren bidea markatu zuena. Bide hori aurrera eramateko orduko lehendakariaren, M. Lekuonaren, uzurtasuna zela eta, 1970ean L. Villasante aukeratu zuten euskaltzainburu; berak gidatu zuen euskara batuaren aldeko lana 18 urtez (1970-88). Esan beharra dago hemen, Probintziako frantziskotarrek ia denek onartu zutela gogo onez Euskaltzaindiak markaturiko bidea.

³² Kongresu horretako hitzaldiak eta gogoetak *Jaunaren Deia* aldizkarian daude bilduta (64-65. zenb., Urtarrila-abendua, 1978)

hurrengo urtean, “Erlijioso Bizitzaren Inkulturapena” gaiari buruz. Esan beharra dago, horiek ez zirela gogoeta-eztabaida soilak, errebindikazio-kutsua ere bazutela, Probintzietako nagusiei begira. Bere buletina era atera zuen Erlijiosoen mugimendu horrek, *Iratzar* izenekoa, eta Iñaki Bereziartuak zuzentzen zuena.

Euskal Herriko Probintziales, “Euskal Herriko Erlijioso Barruti Buruen Batasuna” eraturik, beren batzar periodikoak egin izan dituzte —1974-78 bitartean hamabi batzar burutu zituzten—; kontuan harturik erlijiosoen Loiolako mugimendua eta horren eskabideak,³³ Probintzialen batzarretako gaietako erdiak behintzat erlijiosoen “insertzioaz” edo ingurune sozio-kulturalean barneratzeaz, lekuko Elizaz eta euskararen erabileraz izan ziren.³⁴ Urte horietan sendotu zen, baita ere, erlijiosogaiei teologia euskaraz ematearen aldeko iritzia ere: euskarazko ikastetxe teologiko (eta filosofiko) berezia eraikitze-ko asmoa erabili zuten. Gure Probintziaren aldetik, 1978ko apirilko 1-2 egunetako Definitoriak proiektu horri hasierako baiezkora ematea erabaki zuen, Probintziaren diruzko, ikasleko eta irakasleko partaidetza eskainiz. “Nuestra Provincia se com-

Gogoetaldi garrantziko horietako bat izan zen 1960an Arantzazun egindako kongresua, Probintziaren errestaurazioko ehungarren urtea betetzean, "Congreso de literatura y predicación franciscana en euskera" izenpean.

promete a participar como miembro ‘pleno eta pari iure’ en la creación y gestión de este Centro, o sea, por medio de profesores, de alumnos y de la correspondiente contribución económica”. Dena dela, proiektu hori ez zen gero burutu.

Euskal Herriko Elizako inguruneari dagokionez, buruzko jabetze berria hartzen dute sektore hainbatek, non eragina baitute apezpikuen dokumentu batzuek ere. 1968koa da *Gogor* taldearen dokumentu sona handikoa, “Eliza euskalduna” eskatzen zueneko, besteren artean. 1974koa da Añoverosen gutun pastoralala, halako eskandalu politikoa piztu zuena; bertan Euskal Herriak bere nortasuna zaintzeko duen eskubidea baieztatu zuen eta horretarako zituen eragozpenak salatu: “Sin embargo, en las actuales circunstancias, el Pueblo Vasco tropieza con serios obstáculos para poder disfrutar de este derecho. El uso de la lengua vasca, tanto en la enseñanza, en sus distintos niveles, como en los medios de comunicación (prensa, radio, TV) está sometido a notorias restricciones. Las diversas manifestaciones culturales se hallan también sometidas a un discriminado control”.³⁵ Geroztik Hego Euskal Herriko apezpikuek elkarre-

³³ Antonio Arza jesuitak 29 orrialde luzeko azterketa egin zuen “Consideraciones teológico-jurídicas y conclusiones prácticas de las peticiones de Loyola 1975” izenpean; gogoeta horien inguruan eratu zuen bere hitzaldia probintzialentzat, 1978ko maiatzeko 29ko bileran.

³⁴ J.A. Elustondok eginkizun garrantzikoa bete izan du Euskal erlijiosoen kongresuetan; eta baita Probintzialen Batasunean, idazkari gisa. Hona hemen batzarretan erabilitako gaiak: 1. Batzarra: “Inserción de los religiosos en el pueblo vasco (Loiola, 1974-VI-20); 2. Batzarra: “Orientaciones prácticas de inserción en el pueblo vasco (Gasteiz, 1975-V-20); 3. batzarra: “Cambios socio-políticos y uso del euskera” (Burlata, 1976-I-10); 4. batzarra: “Reflexiones teológico-jurídicas sobre la inserción en el pueblo” (Bilbo, 1976-V-29); 8. batzarra: “Presencia de los Religiosos hoy en Euskal Herria e Instituto Vasco de Teología” (Gasteiz, 1077-VI-11); 10. batzarra: “La Iglesia local y los religiosos” (Iruña, 1977-XI-29); 12. batzarra: “Dinámica socio-política actual del País Vasco y misión de los religiosos” (Loiola, 1978-XII, 11-12).

³⁵ 1974ko otsaileko 24koa da gutuna. Zalantzarik gabe, Euskal Herriko Eliza osoan ezezik, gure fraideen artean ere oso pizgarria izan zen gutun pastoral hori.

kin nahiz bakoitzak bere aldetik behin baino gehiagotan erabili izan dute euskararen eta euskal kulturaren arazoa.³⁶ Donostiako elizbarrutiko *Gentza* izeneko Teologi eta Pastoraliza-Institutuak antolaturiko zenbait mintegi eta gogoetaldi ildo beretik joan zen: 1975-76 ikastaroko mintegietako bat euskal kulturari buruz izan zen; 1977ko ikastaroan hiru mintegi-mahainguru antolatu zituen gai berari buruz: otsailaren 19an euskal kulturari buruz, apirilaren 22an eta azaroaren 12an “Eliza eta euskal kultura gaur” izenpean; horietan gure fraideetako zenbaitek parte bizia izan zuten. Gogoetaldi horren ondorioz 1981ean argitaratu zuen *Gentzak Conflicto cultural y comunidad cristiana. Reflexión teológico-*

pastoral liburua.³⁷ Interesgarria litzateke, gai horri buruzko Euskal Herriko apezpikuen urte haietako pentsaera (edo pentsaerak) aztertzea; hemen ez dut hori egin, baina azpimarratu nahi izan dut behintzat euskararen eta euskal kulturaren arazoa puntu garrantzizkoetako izan dela Euskal Herriko Eliza ofizialaren kontzientzian.³⁸ Izatez, Euskal Herriko elizbarrutiak urte horietan hasi ziren ofizialki euskara erabiltzen, horren ofizialtasuna formalki onartu ala ez.³⁹

Aipatzekoa da kristau fededunen eta pastoraltzan ari ziren apaizen artean susperturiko kontzientzia eta aldeko jarrera euskarari buruz, eta euskal gizartean bizi zen mugimenduarekin

³⁶ 1969an Bilboko eta Donostiako apezpikuek erabilia zuten beren *Nuestro momento diocesano. Dificultades y motivos de esperanza* gutunean; Oso geroagokoak dira Hego Euskal Herriko apezpiku guztiek sinaturiko *La Iglesia una comunidad evangelizadora* (1983) eta *Conflictos humanos y reconciliación cristiana* (1984), arazoari berriro heltzen diotenak.

³⁷ Lehen parte teorikoaren ondoren, non J.M. Setien apezpikuak berak baitu aurreneko idazlana, bigarren partean arazo praktikoko-pastoralak aztertzen dituzte bertan. Esan daiteke seguruenik, arazo horri buruz Donostiako Elizbarrutiaren azken urteotako gida ofiziosoa izan dela hori, dokumentu ofiziala izan gabe. Setienek berak, dokumentu ofizialetan ezezik, hainbat hitzalditan azaldu du bere pentsaera gaiari buruz: “País Vasco: Pluralidad lingüístico-cultural. Hacia una comunidad” (Deustun emandako hitzaldia, 1987ko otsailean), “Fedea eta euskal kultura” (Baionako Seminarioan emandako hitzaldia, 1988ko urrian).

³⁸ Jose Antonio Pagolak argitaraturiko *Etica para la paz. Los obispos del País Vasco. 1968-1992* liburuan, nahiz eta zuzenean ez izan gaiari buruzkoa, dokumentu asko aipatzen ditu, gai hori ukitzen dutenak. Adierazgarria da, izan ere, arazoak izan duen eta duen gatazkaz-izaera eta, beraz, horren konponketa zuzenak duen garrantzia Euskal Herria baketzeko.

³⁹ Jakina, ofizialtasunaren printzipioaren aldarrikapenak berez ez du asko adierazten, horren zehaztapen juridikoak eta aplikazio praktikokoak ezagutu ezean. Iruña-Tuterakoak 1974an euskaraz idatzitako dokumentu ofizialak baliozkotzat ezagutu zituen, baina 1981ean aldarrikatu zuen Cirarda apezpikuak “ofizialtzat” euskara. Arabako Elizbarrutian ez da ofiziala euskara oraindik; 1975 inguruan Apaiz-kontseilua Euskal Pastoralizako Zerbitzua sortu zuen, katekesirako eta liturgiako materialak eskaintzeko; osterantzean dokumentu ofizialak gaztelaniaz argitaratzen dituzte, eta Seminarioan azken urteotan bakarrik eman izan dituzte gairen batzuk euskaraz, Joxe Arregi gure fraideak, hain zuzen ere. Bizkaiko elizbarrutian Gurrupide apezpikuaren garaian (1956-68) dokumentu ofizialetatik (Buletin ofizialetatik) erabat desagertu ondoren, 1969tik aurrera hasi ziren berriro gero eta gehiago euskara erabiltzen dokumentu ofizialetan, praktikan jeneralizatu arte; ez dute, ordea, erabaki formalik hartu euskararen ofizialtasunari buruz; apaizgaiek euskara ikasteari dagokionez, 1973an, hain zuzen, argitaratu zuen elizbarrutiak dokumentu bat, non horiek euskara ikastea arazo larritzat —“es urgente”— jotzen baitu. Gipuzkoako elizbarrutian ere ez dago euskara ofizial aldarrikatzen duen dokumenturik; 1965ean erabaki zuen liturgian euskara erabiltzea, eta horren arabera liturgi liburua euskarara itzultzea; dokumentu ofizialei dagokienez, 1973tik aurrera apezpikuaren (apezpikuen) gutun pastoral zenbait bi hizkuntzetan argitaratzen hasi ziren; eta orduetik aurrera, liturgian eta katekesian ezezik, dokumentu ofizialetan ere (bereziki apezpikuak eta apaiz-kontseiluak idatzitakoetan) zabalduz joan da euskararen ofizialtasuna praktikan; 1979an hartu zuen elizbarrutiak erabaki praktikoa, dokumentu ofizialetan-eta euskararen gutxieneko erabilera zehazteko. Esan beharra dago, Hego Euskal Herriko lau Elizbarrutiek elkarrekin ateratzen dituzten dokumentuak bi hizkuntzetan argitaratzen dituztela; lau Elizbarrutietako Sozial-Idazkaritzak ere bi hizkuntzetan argitaratu izan ditu bere txostenak 1976tik aurrera behintzat.

Badirudi, aurrenik Elizbarrutiko buruarentzat izan beharko lukeela ofizialtasunak: hau da, apezpikuak bi hizkuntzak jakin beharko lituzkeela. Izatez, garai honetan (1978-79 artean) hautatu zituen Aita santuak Hego Euskal Herriko lau elizbarrutietako apezpikuak: denak ziren lehen aldizko euskal herritarrak eta nolabait euskaldunak; Baionakoak erritmo ezberdina eraman zuen, 1986an gertatu baitzen aldaketa; P. Molères apezpiku berria ez zen euskalduna, baina etorri bezain laster egin zuen bere ahalegina euskara ikasteko. Zoritxarrez oso esanguratsua da, atzera-urrats nabarmena delako —eta iraingarria euskaldunontzat— 12-15 urte beranduago euskaraz ez dakiten apezpikuak aukeratzea bai Iruña, bai Gasteiz eta bai Bilborako.

sintonizatu eta elizaren bizitza horri egokitzeko ahalegina. Ipar Euskal Herrian, eta diozesiak ezer egiten ez zuelarik haurren katekesia euskaraz antolatu eta emateko, *Fededunak* elkarteak sortu zen, kristau laikoek apaiz eta fraide batzuekin batera 1970. hamarraldiko lehen urteetan. Donapaleuko Manex Erdozainzi izan zen horren elkartearen eragilerik nagusienetarikoa.⁴⁰ Hego Euskal Herriko kristau-elkarteen koordinakundea eta Euskal Diozesietako Apaizen Pastoral Lanaren Bateratzailea izeneko erakundearen sorrera zerbait beranduagokoak dira (1976-77). Horiek hasi ziren beren bileretan aldi bereko itzulpena egiten, horretarako ekipo propioa lortuz.⁴¹

Ingurune eta dinamika sozial eta eliztar horretan kokatzen da gure Probintziaren jokabidea. 1973ko Kapituluak lehen aldiz onartu zuen euskara ofizialtzat Probintziarentzat. Hori ez zen bat-bateko erabakia izan. Erlijio-soen Loiolako 1972ko batzarrearen ondoren, gure Probintziako 41 lagunek beren bilera berezia egin zuten, fraide guztiei deialdi zabala egin ondoren, Arantzazun, 1973ko otsailaren 14an, urte har-

tako Kapitulumako batzordeak egin zuen inkestari erantzuteko; nolabait Loiolakoaren oihartzuna edo luzapena izan nahi zuen bilera horrek, eta hark konklusio gisa emandako bederatzi puntuak bere egin zituen Arantzazuko taldeak: erlijio-soek euskara ikasteari, alfabetatzeari, euskararen ofizialtasunari, Euskal Herria barrutizat hartuko duten Probintzia eratzeari, ikastetxeak euskara eta euskal kultura lantzeari buruz, besteren artean.⁴²

Euskarazko apostolutzaren kezka eta arazoa berriro mahairatu zituzten urte horretako Probintziaren Kapituluak. Kezka hori jasoz edo, orduko Bisitadore jeneralak Probintziari buruzko txostenean egindako oharra guztiz bestelako tonua du, 1973ko Bisitadoreak idatzi zuenarekin alderatuz; honela zioen oraingoak: “Es necesario y urgente una planificación del apostolado especializado en vasconce, sirviéndose de este ancestral instrumento cultural para penetrar en las masas, y no dejando que la lengua vasca sirva sólo para un desarrollo de cultura laical”.⁴³

Horri erantzun nahian edo, hurrengo Kapitulumako, inkesta

berezi bat egin zuen 1975ean Apostolutzaren idazkaritzak, Felix Torrealdayk gidatuta, 48 galdere-tan; datu pertsonal-psikologikoez gain, aldaketa sozial, kultural eta eklesialen testuinguruan eta Euskal Herriaren egoera eta arazo sozial, politiko eta kulturaren inguruan ipini zituen euskarari buruzko galderak (10 bat guztitara). Ez dira euskararen ezagutzari eta erabilerari buruzkoak bakarrik, eta bai Euskal Herriaren historia eta egoera sozial, kultural eta politikoari buruzkoak ere. Testuinguru zabalean daude ipinita, beraz, euskarari buruzko galderak. Batzordeak inkestaren emaitzaren analisi aski xehea egin zuen, eta hurrengo Kapitulumak aurkeztu.

Txostena irakurri ondoren, fraideen euskarazko alfabetatzeari buruzko eskabide bat aurkeztu zuen Arrasateko anaiarteak. Hurrengo saioan hartu zuten zerbait erabaki kapituluak, serorentzako gogo-ihardunetan eta, euskara erabiltzeko, eta bereziki fraideen alfabetatzeari buruz.⁴⁴ Bi puntu horiek Kapituluaren konklusio ofizialetera pasa ziren.

Zalantzarik gabe 1976ko Kapitulumak erabakigarria izan zen gure Probintzian euskarari dago-

⁴⁰ Paulo Agirrebaltzategik ere parte hartu zuen elkartearen sorreran eta ondorengo zenbait bileretan.

⁴¹ Apaizen Bateratzailea 1976aren azken aldera eta formalki 1977an sortu zen. Oinarriko kristau-elkarte herritarren lehen bilera, Hego Euskal Herri mailakoa, berriz, 1977ko maiatzean egin zuen lehen aldiz Iruñan. Horien euskararekiko jarrera, urte haietakoak, ezagutzeko, ikus daiteke: “Comunidades cristianas Populares ante un compromiso: El euskara, in: *Herria-2000-Eliza* (61. zenb., otsaila 1984), 19-20 eta 27-29. 1977an zabaldu zuen “Euskal Eliza baterantz” gaiari buruzko gogoeta-etzabaidan ez da zuzenean euskararen arazoan sartzen, nahiz eta argi agertu apezpikuek “euskaldunak” izan behar dutela.

⁴² 1975eko ekainaren 30etik uztailaren 19a bitartean ikastaro berezia antolatu zuten mojen euskarazko alfabetatzerako Lazkaon, Loiolako batzarrean egindako eskabideari erantzunez.

⁴³ *Cantabria Franciscana*, 119. zenb., maiatza 1973, 10. or.

⁴⁴ Honela formulatu zuen azken puntu hau: “Dada nuestra condición de religiosos en el País Vasco y el porcentaje de Hermanos que piden un mayor perfeccionamiento en el euskera, el Capítulo provincial ve con buenos ojos y desea que se organicen cursos de cultura y alfabetización para las fraternidades. Encomienda su organización al grupo JAKIN.”

kionez: gaztelaniarekin batera euskara ere ofizialtzat berrestez gain, fraideen aldetik euskara lantzeko printzipioa ipini zuen: “Para una mejor inserción en el ambiente externo e interno, a nivel individual y colectivo, se considera necesaria una capacitación en entender, leer, hablar y escribir en euskera, para los que quieren vivir en el País Vasco”. Eta horren arabera, fraideen euskarazko alfabetatzea bultzatzeko erabakiak hartu zituen.⁴⁵

Jakinek 1977ko urtarrilaren 22an landua zeukan bere proiektua alfabetatzeari buruz; Kapituluak adierazi bezala, ez zen euskara lantzea bakarrik sartzen horretan, eta bai Euskal Herriaren historiaz, euskal kulturaz eta hemengo egoera zozio-politikoaz hobeto jabetzea ere. Gehienbat anaiarte bakoitzaren eskuetan uzten zuen ekimena, alfabetatzekultureztatze lan hori etxe bakoitzean programatzeko eta aurrera eramateko. Hala ere eskualde mailan eta Probintziaren mailan zenbait eginkizun ere proposatu zuen txostenak. Urtarrilaren 24an bidali zion taldeak hori Probintzialari eta Apostolutzako nahiz Anadi-bizitzako Idazkari-

Probintziaren barruko dinamikari, euskararen eta euskalduntzearen ingurukoa, ez dio urte horietan Jakin-en taldeak eragin —hori gizartera begira ihardun da Probintziara begira baino askoz gehiago—. Probintziaren barruko gogoeta egin eta erabakiak hartu, arazo horri buruzkoak, Definitorioaren, batzordeen eta kapituluaren barruan egin dira batez ere.

tzei.⁴⁶

Nolabaiteko dinamika abiatua zen bide horretatik. Dena dela, 1979ko Kapituluak berriro itzuli-ko da fraideen euskalduntzearen arazoaren gainera, gizartean txertatzeko bidetzat hartuz hori. Aipatu dugu Batzorde bereziak prestaturiko “Por una inserción de la vida franciscana en Euskal Herria” txostena, aldeaz aurretik egindako beste inkestaren gain landutakoa. Bi kapitulu nagusi zituen inkestak: 1. Fraideen euskalduntzea; 2. Probintziaren banaketa geografikoa.⁴⁷ Horren ondorioz, Kapituluak bere akordioetako hiru puntu eman zizkion Probintziaren izeaera euskaldunari eta fraideen euskalduntzeari (11-13). 11.ean berretsi egin zituen 1976an harturiko akordioak. 12.ean aurreko Kapituluak onartutakoei eraginkortasun handiagoa ematea erabaki zuen: “Probintzialaren eta honen Definitorioaren gain uzten du erabaki horiek hobekiago eta efikazia gehiagorekin praktikara eramatea, kapituluurreko enkuestaren bidez agertutako gehingoaren desioak jarraituz eta “Por una inserción de la vida franciscana en Euskal Herria”

⁴⁵ Hemen jasoko dugu erdaraz hitzez hitz kapitulu b) akordioa, elebitasunari buruzkoa, geroko kapituluetan horrelaxe errepikatu eta jasoko baita: “Bilingüismo: 1) Se reconocen como lenguas oficiales de la Provincia Franciscana de Cantabria el castellano y el euskera. 2) Los documentos oficiales de la Provincia Franciscana de Cantabria serán redactados en castellano y en euskera. 3) Cada Fraternidad decidirá la lengua que debe usarse en todos o en determinados actos de la vida comunitaria, de acuerdo con el Padre Provincial. 4) Para una mejor inserción en el ambiente externo e interno, a nivel individual y colectivo, se considera necesaria una capacitación en entender, leer, hablar y escribir en euskera, para los que quieren vivir en el País Vasco”. 1976ko kapitulu Aktak. Akordioak eta Ondorioak gaztelaniaz bakarrik argitaratu zituzten; baina 1979koak bi hitzkuntzetan, aurreko kapituluaren erabakiaren arabera.

⁴⁶ Adierazgarria da alfabetatzekultureztatzearen arazoa ez dela Apostolutzako idazkaritzaren eginkizuntzat bakarrik jartzen, eta bai Anadi-bizitzako idazkaritzaren eginkizuntzat ere, elkar-bizitzaren arazoa delako, hain zuzen. Elkar-bizitzarena, etxe barrura begira eta gizarteari begira.

⁴⁷ 1979ko kapitulu-ondoko batzarrea (1980ko urtarrileko 2-5 egunetan egina) gai horretaz izan zen, besteren artean. Terapia gisa edo, Manolo Pagola eta Agustín Pérez de Arenaza arduratu ziren eztabaidaren aktak egiteaz; A. Probintzialaren aurkezpen berezi batez zabaldu zuten orduan kronika hori fraideen etxeetara (Ik. “El regionalismo dentro de la Provincia” dokumentua, Prot. n. 02/80). “Es por esto que en la conclusión de esta Asamblea postcapitular se convino entre todos, que los dos Secretarios de grupo escribiéramos esta especie de crónica, expresando con la mayor objetividad posible cuanto vino a referirse o comentarse en la reunión conjunta en torno a las dos preguntas planteadas a ambos grupos” (dokumentuaren 4. orrialdean).

izenburuarekin kapituluareko batzordeak prestatuak dokumentuak dauden fedearen inkulturapenari buruzko printzipioak eta hauei dagozkien jokabideak kontutan hartuz". 13.ean fraideen euskalduntze-prozesua bizkortzeko "kolaborazio instituzionala konkretatuz joatea" eskatu zuen Kapituluak. Gainera beste bi puntu konkretu erabaki zituen: a) fraidegaien heziketan ihardungo zutenak elebidunak izatea, b) ikasle euskaldunek bere Eliz ikasketak osorik euskaraz egin ahal izateko bideak bilatzea. "Kolaborazio instituzionalaren" formula abstraktu horrek eduki handia zuela uste dut: hau da, euskalduntzea ez zen fraide bakoitzaren nahierarakoa, Probintziak eskakizun instituzional eta kolektibotzat asumitzen zuena baizik, eta horretarako etxeak eta Probintzia bera arduratuko ziren neurriak hartzeaz.⁴⁸

MOTELALDIA ETA GELDIALDIA (1982-1995)

1982ko Kapituluak ez zuen

gogoeta aldetik ezer berririk eka- rri; baina bai erabakien aldetik: 1976koan eta 1979koan euskararen ofizialtasunari buruz eta fraideon euskarazko gaitasunari buruz erabakitakoak Estatutu Partikularretara pasatzea erabaki zuen, hain zuzen ere. Horrela lege iraunkorraren kategoria eman zien erabaki horiei. Alde horretatik esan daiteke historikoa izan zela 1982ko Kapituluak. Horren ondorioz Estatutu Partikularretako 2. artikulua aldatu zen behin-behingo⁴⁹, 1988koak etorri ziren arte, non 5 & 2 artikuluan geratu baitzen. Hona hemen 1988ko Estatutu Partikularretako testua hitzez hitz: "a) Probintziaren hizkuntza ofizialak gaztelera eta euskara izango dira; b) Probintziaren dokumentu ofizialak euskaraz eta gaztelera idatziko dira; c) Anaiarte bakoitzak erabakiko du zein hizkuntza erabili elkarrekin bizitzeko iharduera denean edo batzutan; d) bakarka edo talde bezala kanpo eta barne giroan hobeto txertatu ahal izateko, euskal eskualdean bizi direnentzat beharrezko jotzen da euskaraz ulertu, irakurri, hitzegi eta

idazteko gai bihurtzea".

Hemen ez gara hasiko bi printzipio garrantzizko horien azterketa eta kritika egiten; beharago edukiko dugu horretarako aukera. Esan beharra dago, ordea, Euskal Herrian bizi diren fraideak "euskaldun osoak" (ulertzeko, irakurtzeko, hitzegiteko eta idazteko gai direnak) izatea duela helburu euskalduntzearen printzipioak, Txepetx soziolinguistaren terminologia erabiliz; gainera euskaldun aktiboak, eta ez pasiboak bakarrik, euskararen ulermenaz gain, irakurmena, mintzamina eta idazmina lortu behar baitituzte horiek.⁵⁰

Kapituluak haratago doa, euskalduntzeari buruz Estatutuaren sartutako puntua zabalduz, betetzera bultzatuz eta horretarako neurri konkretuak iradokiz. Batek 1979ko Kapituluak (11., 12. eta 13. akordioan) erabakitakoak berresten ditu (26. akordioa); eta beste puntu bat eransten du: 26. d) "Anaidiei, bakar eta elkarte otaitzerako euskarazko material aberatsago eta ugariago eskaint-

⁴⁸ Badirudi Txostenak 67. orrialdean, 305. eta 306. puntuetan proposatzen duenari erantzuten diola "kolaborazio instituzionala konkretatze" horrek: 305. "La acción a nivel de individuo y de fraternidad no obsta para que como quiere el 42,1 % de los encuestados (el 55,6 % de los residentes en Euskal Herria) se creen medios y estructuras para la euskaldunización. Apoyo del proceso de euskaldunización por parte de la autoridad, creación de un secretariado, organización de conferencias de mentalización, de euskaldunización, de alfabetización, facilitadas para dedicarse al estudio de la lengua y de la cultura vascas, seguimiento de la marcha de las fraternidades sobre este punto etc.". 306. La euskaldunización exige, por tanto, la conjunción de los tres planos de acción individual, de fraternidad y de Provincia".

⁴⁹ Probintziako Estatutuaren Art. 2. & 2 berria sartu zuten orduan: "Por lo que respecta al territorio de la Provincia en la Península Ibérica, se tendrá en cuenta, siempre que parezca conveniente o lo establezcan estos Estatutos, la existencia de dos zonas en este territorio, a saber, la zona vasco-navarra y la zona castellana, cada una con sus diversificaciones lingüísticas y culturales. Se reconocen como lenguas oficiales de la Provincia el castellano y el euskera; los documentos oficiales de la Provincia serán redactados en castellano y euskera: cada Fraternidad decidirá la lengua que deba usarse en todos o en determinados actos de la vida comunitaria; para una mejor inserción en el ambiente externo e interno, a nivel individual y colectivo, se considera necesaria una capacitación en entender, leer, hablar y escribir en euskera para los que quieren vivir en el país vasco". 1988ko Estatutu Probintzialek 5. & 2 artikuluan jasotzen dituzte puntu horiek ia hitzez hitz, baina zehatzuz Gaztelako eskualdeak zein barruti hartzen duen (Burgo de Osma-Soria, Burgos, Calahorra-Logroño, Santander, Sigüenza eta Valladolideko elizbarruak eta Madrilgo etxeak) eta Euskal Herrikoak zein (Bilbo, Iruñea-Tutera, Donostia eta Gasteizko elizbarruak, alegia). Ezaguna da, beste kongregazio batzuk (Klaretarrek, Jesuitek eta) Euskal Herriaren barrutia hartu zutela lehenengo edo geroago Erljioso-probintziaren barrutizat; gure Probintziak ez zatitzea erabaki zuen orduan, baina juridikoki eta zenbait funtzionamendu-puntutarako bi eskualde eratuz.

⁵⁰ Euskararen irakaskuntzaren metodologian honako hitz hauek erabiltzen dira euskararen ezagutzaren edo gaitasunaren lau dimentsioak eta mailak adierazteko: ulermena, mintzamina, irakurmena, idazmina.

zako behar diren urratsak eman ditzala”. Bestetik, Probintzialari eta Definitorioari erabaki horiek “hobekiago eta efikazia gehiagorekin praktikara eramatea” eskatzen die Kapituluak. Badirudi Kapituluak kezkatuta dagoela, aurreko bi Kapituluetan hartutako erabakiek ez dutelako fruitu handirik eman nonbait; horregatik ere horretarako aurrekoan eskaturiko “kolaborazio instituzionala” zehaztea eskatzen du: “lankidetzaren instituzional egokia presta dezala” (26, a). Areago, kapituluak errepikatzen eta berresten ari diren erabaki horiek bete arazteko eta anaiak euskalduntzeko bideak zehaztea eta “euskalduntze-dinamikaren animatzaile bat izendatzea”.⁵¹

Badirudi Probintzia, bere kapituluaren bidez, hortxe iritsi zela fraideak euskalduntzeko eskakizunaren gailurrera. Hurrengo Kapituluak (1985), batetik, Estatuetan sartutako artikulua berria gogoratu eta euskalduntzeari buruz aurreko Kapituluaren esandakoak hitzez hitz errepikatu besterik ez ditu egingo, bestelako ideiarik, asmorik edo eskabiderik ekarri gabe.

1988ko Kapituluak ere puntu

horiek errepikatu zituen, gehiagorik gabe, hasteko; baina kezka larri bat nabarmendu zuen: aurreko urteetako erabaki horiek betetzeko zailtasunak, alegia. Badirudi neke eta etsipen modukoren bat nabari dela Probintziak bultzaturiko euskalduntze-prozesu horretan. Horregatik ahaleginari eusteko beste bi arrazoi ekartzen ditu Kapituluak (3. akordioa, sarra): Fraideak duen inkulturatu eta herrian txertatu beharra, bate-tik, eta justizia eta bakearena, bestetik. Hain zuzen ere, Kapitulu horretantxe onartu zuten “Justizia eta Bakea” Batzordea sortzeko proposamena.⁵² Bada euskalduntzeari buruz beste eskabide garrantzikorik, berria, Kapitulu honetan: fraidegaien heziketaren arduradunei egina, horien euskalduntzea bideratzeko; motibazio gisa goian aipaturiko bi arrazoiak errepikatzen dira: fedearen inkulturazioa eta justizia eta bakea: “Heziketaren arduradunei eskatzen die, orain hurrengo Kapituluako elebitasunari buruzko Erabakiak berronetsiz (...) eta fedearen kulturatzearekin (inkulturazioa) eta gure artean justizia eta bakea bultzatzearekin daukaten zer-ikusia dela-eta, estudia dezatela gure kandidatuak euskalduntzen nola lagundu eta

praktikan nola jairri”. Puntu horixe errepikatuko dute hurrengo bi Kapituluak ere (1991koak eta 1994koak).

Gainerantzean azken bi Kapituluak ez dute ia ezer ekarri Probintziako fraideen euskalduntzeari begira, ezer berririk behintzat ez. Gainera Estatutu Partikularren artikuluari buruzko oroitzapena, aurreko bi Kapituluetan agertzen zena, desagertu egiten da, eta era berean desagertu egiten da kapituluak errepikatu izan den “euskalduntzea” saila, Probintziaren konstituzioaren eta bi eskualdeen atalaren barrukoa. Oso esanguratsua iruditzen zait azken bi Kapituluak euskalduntze-gai espezifikoaren “hustuketa” hori.⁵³

Beste testuinguru batean (“Justizia eta Bakea” sailean) 1994ko Kapituluak gogorarazi egiten die fraideei Estatutu Partikularretako 5, d) puntua, inkulturazioaren printzipioaren izenean, Probintziako euskal eskualdean bizi diren fraideei “euskaraz ulertu, irakurri, hitzegin eta idazteko” moduan gaitzeko ahalegina egiteko eskatuz.⁵⁴ Ez dirudi okerreko bidea fraideen euskalduntzearen arazoa “justizia eta bake-

⁵¹ JAKINen txostenean iradokita zegoen anaiarte bakoitzean euskalduntze-programaren arduradunen bat izendatzearena.

⁵² 1988an proposatu zion kapituluak lehen aldikoz esplizitoki Probintzialari “Justizia eta Bakea” batzordearen eratzea (11. akordioa), Segurako anaiarteak aurkezturiko txostenaren ildotik. 1991ko kapituluaren (11. akordioa) benetako erabakia hartu zuen kapituluak horri buruz, aurretik ofizialki prestatutako eta irakurritako txosten eta proposamenaren arabera. Aipatu dugu gogoara nola azken urteotan fraidegaien euskalduntze beharra justizia eta bakearekin loturik agertu den kapituluak akordioetan.

⁵³ Irudiko luke, kapituluak aspertuta —edo etsita— dagoela fraideen euskalduntzearen proiektuari buruz; ez da izango aurrerantzean kapituluaren aztergai eta erabakigai espezifiko.

⁵⁴ “Kapituluak oroitazten die anaiari, Estatutu Partikularretan inkulturazioari buruz erabakitakoaren balioa eta gaurkotatzea; batez ere atal honen: Bakarkia eta talde bezala kanpo eta barne giroan hobeto txertatu ahal izateko, euskal eskualdean bizi direnentzat beharrezko jotzen da euskaraz ulertu, irakurri, hitzegin eta idazteko gai bihurtzea. Horregatik eskatzen die ez dezatela etsi erabaki hori bideratzeko ahaleginean, berak bizi diren herriaren kulturaren hobeto itsasteko”.

aren” motibaziotik eta sailetik lantzea; ikuspegi hori funtsezkoa dela uste dut Euskal Herrian fraideok euskalduntzeko eskabidea oinarritzeko. Zoritxarrez, eta batzorde horretakoa naizenez, esan beharra daukat nahikoa bazterrekoa izan dugula gai hori Justizia eta Bakea batzordean bertan. Motibazio hori askoz gehiago lantzekoa eta sakontzekoa dela uste dut.⁵⁵

BALANTZEAREN BILA

Azken hogeitabost urteotan Probintziak euskalduntze aldetik egin duen bidearen balantzea egiteko dago, eta seguruenik egitekoa da. Nik dakidanez, ez da euskararen ofizialtasunaren zehaztapan konkretuaren, elebitasunaren funtzionamenduaren eta fraideen —eta Probintziaren beraren— euskalduntze-prozesuaren balantzerik egin, ofizialik behintzat. Datu zehatzik ezean, nere ondoko lerro kritikoak hala-beharrez neure iritzi eta inpresioetan geratu beharko dute neurri handi batez. Balantzea egiteko iradokizun batzuk besterik ez dira, bada, izango ondoko lerro hauek.

Nola juzgatu behar da 25 urteko dinamika hori? Probintzia euskaldundu ote da? Eskualde euskalduneko fraideak euskaldundu ote dira? Nola bete ziren 1976an eta 1979an harturiko erabakiak eta ondorengo Kapitu-

luetan errepikatuak? Galdera larriak dira, puntu honetara iritsita; baina egin beharrekoak, aurrera begira zintzotasunez eta zorrotasunez jarriko baldin bagara.

Ipar Euskal Herrian, eta diozesiak ezer egiten ez zuelarik haurren katekesia euskaraz antolatu eta emateko, Fededunak elkarteak sortu zen, kristau laikoek apaiz eta fraide batzurekin batera 1970. hamarraldiko lehen urteetan. Donapaleuko Manex Erdozainzi izan zen horren elkartearen eragilerik nagusienetarikoa.

Ofizialtasuna

Euskara ofiziala da Probintzian 1973tik hona; eta 1979-80tik hona Probintziako estatu-tuetan dago erabakia. Bi dimentsio eman izan zaizkio ofizialtasun horri: dokumentu ofizialak euskaraz ere ematea, batetik, eta Probintziako etxe bakoitzak erabakitze ahalmena, zein hizkuntza eta nola erabiliko duen anaiartearen ekitaldi ofizial eta bilera komunitarioetan.

Lehenengoari dagokionez, 1973ko Kapitulutik aurrera Definitorioaren aktak eta Probintziaren dokumentuak bi hizkuntzetan zabaldu izan dira. Baina badaude bestelako dokumentu ofizial edo ofizioso (idazkaritza edo batzordeenak nahiz Probintziako arduradunenak) gaztelaniaz bakarrik zabaldu direnak; batzuek sistematikoki gainera. Era berean Kapitulurako txosten ofizialak sarritan gaztelaniaz bakarrik eskaini izan dira. Bestalde, Konstituzioak, Estatutu Jeneralak eta Estatutu Partikularrak euskaratzeko ahalegina egin du Probintziak; baina Probintziaren gainetik fraideoi datozkigun dokumentuak, Ordenarenak eta Frantziskotarren Konferentziarenak beti gaztelaniaz bakarrik hartu ohi ditugu.

Probintziako etxeei dagokienez, nik dakidanez etxe bakar batek du euskara bere hizkuntza “ofizialtzat” hartua; beste zenbait etxetan, gaztelania ofizial baka-

⁵⁵ 1991ko Kapitulua ondoko batzarrean (26-28 abenduan egina) “Pobreen aldeko aukera” gaia izan zen nagusia, Justizia eta Bakearenildoari jarraiki. Uste dudanez, pobreen (norbanako pobreen eta talde pobreen) alderdi kultural eta hizkuntza —minorizazio kulturala eta hizkuntzazkoa— oso ilun edo kanpora geratu ziren. Hortxe egon zitekeen zio eta gai berri bat fraideen euskalduntzearen (insertzioaren eta kultureztatzearen) arrazoiak sakontzeko.

rra izatetik, euskara ere erabiltze-
ra igaro, eta erabaki formalez
nahiz jokabide praktikoz “arau-
tuta” daukate euskararen erabile-
ra anaiartearen otoitzaldietan eta
ekitaldi ofizialetan bereziki; bai-
na bstelako ekitaldi komunitario-
etan (bileretan eta) euskararen
ofizialtasuna norberak hori era-
biltzeko *eskubidea* ematean ge-
ratzen da, eta ez du “arautzen”
euskara gutxienez erdararen pa-
rean erabiltzea, dokumentuetan,
hitzaldietan nahiz elkarrizket-
tan. Egia da, dena dela, euskara-
ren erabilera praktikoa handitu
egin dela Euskal Herriko gure
hainbat etxetan, bai anaiartearen
ekitaldi komunitarioetan eta bai
anaien arteko harreman informa-
letan ere.⁵⁶

Elebitasuna

Euskara ofizialtzeak Probint-
zia elebiduna dela esan nahi du,
eta bi hizkuntzak (gaztelaniak eta
euskarak) parean beharko dutela,
erabilera praktikoa. Hala ere,
garbi dago, horrelako elebitasu-
nik ez dagoela gure Probintzian,
ez komentuetan, ez idazkaritza
eta batzordeetan, ez Probintziako
bestelako lan-bilera ofizialetan
(kapituluetan, kontseiluetan), ez-
ta fraideentzat antolaturiko eki-
taldi kolektiboetan ere (berri-
kuntza edo hezkuntza iraunko-
rreko ekitaldietan, etab.).

Garbi dago, baita ere, gure
Probintziako dokumentazio ofi-
ziala (maila guztietakoa) gehien-

gehienik erdaraz produzitzen de-
la; eta euskarazko testua itzulpe-
na izan ohi dela, horrek dituen
eragozpen guztiekin, itzulpena
egokia edo ona denean ere.

Orain ez gara sartuko elebita-
suna helburutzat ipintzeak dituen
akatsak aztertzen, hizkuntza mi-
norizatuaren normalkuntzari be-
gira; ezta ere bideragarria den ala
ez benetako elebitasun sozialik.
Dena dela, garbi dago edozein
talde sozialetan ezinezkoa dela,
benetako elebitasun soziala, tal-
dea osatzen duten kide denak
elebidunak ez baldin badira, edo-
ta baliabideak ipintzen ez badira
bileretan eta, bi hizkuntzak pare-
an erabiltzeko.

Fraideen euskalduntzea

Erabakia oso garbia eta tinkoa
izan da Probintzian: Euskal es-
kualdeko fraideek euskara ikasi
behar dute ulertzeko, irakurtze-
ko, mintzatzeko eta idazteko mo-
duan. Horretarako komentu ba-
koitzak edo, euskara ikasteko
edo lantzeko eskolak antolatu be-
harra erabaki zuen Probintziak.
Eta horiek bideratzeko neurri
batzuk proposatu zituen: a) *Ja-
kin* taldeak programa-plana egi-
tea eta euskalduntze-alfabetatze-
ko kanpaina antolatzea; b)
Anaiarte bakoitzak ikastaroen
arduraduna izendatzea; c) Pro-
bintzial-Definitorioek fraideen
euskalduntze-kanpaina hori era-
ginkorragoa egiteko “lankidetza
instituzionala” eskaintzea.

⁵⁶ 1979ko kapitularako prestatuturiko txostena lantzeko batzordeko baten aurreko idazlanak argi eta garbi esaten zuen orduan: “Hay co-
munidades que habitualmente se expresan en euskera: Tolosa, Mondragón, Beasain, Bermeo, Zamalbide, Jakin.”

Jakin-ek egin zuen bere proiektua eta plana; baina etxe bakoitzaren eskuetan utzi zuen hori aurrera eramatea.⁵⁷ Ikastaroak antolatu, bai, antolatu ziren hainbat etxetan (euskal eskualdeko etxe guztietan bai?); zenbatek hartu zuen parte? nolako trinkotasuna eta luzera eduki zuten ikastaroek? Horien balantzerik ez zuten etxeek egin, emaitzak neurtzeko eta aurrera begirako neurri berriak hartzeko. Ia “berrez” edo, joan ziren hilez ikastarororiek —nekeagatik?, ardurarik ezagatik? antolamentu eskasagatik?—, batean eta bestean jakin ahal izan dudanez. Kanpainaren arrakastarik ezaz —porrotaz?— jabeturik edo —1979ko Kapituluako txostenak ordura arteko ahalegin xume (“tímidos intentos de alfabetización”) batzuk eginak zirela esaten du—, Probintzialaren eta Definitorioaren esku utzi zuen aurrera bultzatzea Kapituluak. Baina ondoko hiru urteetan indartu ote zen euskalduntze-mugimendua gure etxetan?⁵⁸ Dena dela, handik hiru urtera, 1982ko Kapituluak “la-

guntza instituzionala” eskatu zien berriro Probintzialari (edota Definitorioari). Nik dakidanez, ez Definitorioak eta ez Probintzialak ez zuten neurririk hartu alde horretatik. Agian ez zen aintzakotzat hartu Kapituluaren iradokizuna (agindua), fraideen alfabetatze-euskalduntzea bera ez zelako benetan Probintziaren egiteko instituzionalizat ulertu. Ez zuten horretarako idazkaritzarik sortu, euskalduntze hori laguntzeko, 1979ko txostenak eskatzen zuen bezala; nik dakidanez, ez zen arazoaz jaberazteko (“mentalizaziorako”), euskalduntzeko eta alfabetatzeko hitzaldirik edo bilerarik antolatu; eta Probintziak ez zuen anaiarten ahaleginaren eta euskalduntze-prozesuaren jarraipenik egin.

Arrazoiak ugariak izan daitezke; horiek guztiengatik agian oso motz geratu zen 1976ko eta 1979ko Kapituluetan diseinaturiko euskalduntze-proiektua. Probintziaren helburua zen Euskal Herriko fraide guztiak elebidunak izatea, “euskaldun osoak”

izatea: euskara ulertzeko, irakurtzeko, mintzatzeko eta idazteko gaituak, alegia. Argi dago helburu hori ez dela lortu, eta gaur egun oraindik Probintzia oso urruti dagoela helburu horretatik.⁵⁹

Fraidegaien euskalduntzea

Probintzia elebiduna izanik, eta Euskal Herrian bizi (eta bizitzekoak?) diren fraide guztiak elebidunak (eta “euskaldun osoak”) izan behar badute, badirudi ondorio garbia dela fraidegaientzat. Ildo horretatik joan izan dira kapituluaren erabakiak, goian ikusi dugunez.

Zalantzarik ez dago fraidegaiaren euskalduntzeari dagokionez, gure Probintziak ia etengabe aurrerako bidea eramanez duela, motela izan bada ere, azken 75 urteotan euskara irakatsi behararren kontzientzian eta horren aplikazioan, ikasketa-programetan eta ordutegietan. Taulatxo batez ager genezake aurrerabide hori.

⁵⁷ 1976an *Jakin* taldeari agindu zioten fraideen euskalduntzeko programa aurkeztea. Hori egin zuen; baina ez zuen bestelako eragiletzarik hartu bere gain, hainbatek uste zuenaren aurka. Agian ekimen handiagoa hartu behar zuen horrelako ahalegin handiko prozesuan. Dena dela, argi eta garbi kapituluak berak etxeen eskuetan utzi zuen zuzeneko ekimena, “Probintziaren kolaborazio instituzional” eta guzti.

⁵⁸ Ez dago zalantzarik, gure komunitateetan euskararen erabilerari dagokionez, asko aldatu dela azken 25 urteotan. 1979ko txostenak 40-50 hamarraldietako komentuetako giroari buruz dioena, eta 60' hamarraldikoari buruz L. Villasanteren testigutza —biak gorago aipatu ditugu—, biak gainditurik geratu dira. E. Agirritzek, 1979an bertan idatzitako txosten batean zera dio: “Hay comunidades que habitualmente se expresan en euskera: Tolosa, Mondragón, Beasain, Bermeo, Zamalbide, Jakin”. Orduetik hona ez dakit komentu horietan aurrerapenik egon den; baina esan daiteke bestelako komunitate batzuetan ere (Arantazazun bertan) euskara normal samar erabiltzen dela fraideen arteko eguneroko bizitzan.

⁵⁹ Euskal Herrian bizi zen fraide askotxo prozesu horretatik kanpo geratu zen. Neurri batez, 1979ko kapituluako txostenak aipatzen dituen zailtasun batzuk izan daitezke horren argigarri: aldaketa sozio-lingüistikoaren berezko moteltasuna, fraide batzuren aldetik euskara ikasteko eta lantzeko kontrako jarrera, Euskal herrian txertatu behar diren jabetasun eskasa. Dena dela, ez zen inola ere lortu kapituluak aldarrikatzen zuen elebitasun erreala, hori ulertu behar baldin bada, Euskal Herrian bizi diren fraide guztiak bi hizkuntza, gatzelania eta euskara, jakitea.

Euskararen irakaskuntza fraidegaiei azken 75 urteotan gure Probintzian(*)

Urteak (**)	Ikastaroak	Olite: Filosofia	Forua Kol.	Arantzazu Kol.	Aste/ord.
1920-1935	2	+ (1)	+ (1)	-	2
1935-1945	3	+ (1)	++ (1)	-	3
1945-1950(?)	4	+ (1)	++ (1)	+ (1)	4
1951(?)-1961	6	+ (1)	++ (1)	+++ (1)	6
1961- (***)	6	+ (1)	++ (1)	+++ (2)	9

(*) Bernardo Madariagak gorago aipaturiko idazlanean dioenez, 1922 ezarritako ikasketa-programa lehenagotik aplikatzen hasia zen gure Probintzian; horregatik 75 urte bota ditugu: 1920-1995, hipotesi gisa.

(**) 1927tik gerorako datuak ahoz jasota daude, garai bakoitzeko fraideei (ikasle nahiz irakasleei) galdetuz; informazio horiek nahikoa bat datoz; horien arabera, ikastorduen aurrerabidea erreala eta egiazkoa da; hala ere, horiek zein urtetik zein urtera aplikatu ziren batzutan egon daiteke egokitu-ezinen bat —1950. urtea, adibidez, galdera-zeinuarekin jarri dut, agian zerbait lehenxeago edo geroxeago sartu zen euskararen irakaskuntza Arantzazuko Kolegioko hiru urteetan—; dena dela nahikoa hurbiltzen garela uste dut. 1935-1945 urteetako fasean daude gerra zibileko urteak: nire berriemaileek esan didatenez, lehendik zetorren fraidegaien ikasketen programa eta ordutegia ez ziren aldatu; horregatik 1945era arte 1935eko programa bete zela ematen dut.

(***) 1961etik aurrera hainbat urtetan programa horrek jarraitu zuen; baina gero Filosofiako ikastaroak Erriberritik ateratzean, bestelako egoera sortu zen noski; berdin gertatu zen Foruko mutilak Institutura joaten hasi zirenean; eta azkenik, Arantzazuko ikastaroak gutxitzen hasi zirenean, orain dela bost bat urte desagertu arte

Historikoki esan daiteke Probintzia, oro har, euskal gizartearen aurretik ibili izan dela, fraidegaien heziketan euskara irakasten. Baina azken hogeitabost urteotan atzera geratuta zegoen horretan, bai maila ertainetan eta bai gorakoetan (filosofia-teologiaren edota unibertsitateko ikasketetan), urte horietako ikastolen mugimenduaren, geroko irakaskuntza publikoko D ereduaren gorakadaren⁶⁰ eta Unibertsitatearen euskalduntze-prozesuaren⁶¹ aurrez aurre jartzen badugu. Baina lortu ote da, lortzen ote da, fraidegaiok elebidun eta “euskaldun osoak” izatea?

Garbi dago fraide gazteenetan eta azkenengoetan ere ez dela hori betetzen sarritan.

Plangintzarik eza

Euskara ofiziala izatea, fraideak Euskal Herrian elebidun eta euskaldun osoak izatea, fraideak euskalduntzea... Helburu horiek ez dira bete, argi dago. Zergatik? Arrazoiak hainbat eta ezberdinak izan daitezke. Gai horri buruzko kontzientzia eta sentiberatasunaren galtzea gertatu da azken urteotan fraideon artean. Probintziako gidari eta arduradunen kezka

nagusiak beste nonbaitetik joan dira 1982tik hona; inkulturazioaren eta “intertzioaren” (txertatzearen) ideia asko erabili da, baina ez zaio heldu horrek gure Herri honetan duen espezifikotasunean eta larritasunean. Uste dudanez, Probintziako agintariek ere ez diete eutsi, lehentasunen artean behintzat, arazoari buruz kapituluetan hartutako erabakiei. Funtsean egon daiteke, arazoak duen gatazka-elementuari ihes egin nahia gure Probintzian, bestelako gatazka-gaietan uzkur jokatzen bezala; 1979ko Kapituluaren eta 1980 kapituluondoko batzarrean arazoak sortu zuen bi-

⁶⁰ 1996-97 ikastarorako lehen mailako EAEko ikasleetatik %62 D ereduari matrikulatu dira, eta %30 B ereduari (hau da, erdibana-edo, gaiak euskaraz eta erdaraz ematen dituen horretan).

⁶¹ Euskal Herriko Unibertsitatean gaur egun hainbat eta hainbat ikastaro eta batzutan karrera osoak egiten ahal da euskaraz.

zitasunaren ondoren, baretzen ezezik, moteltzen eta nolabait ahazten utzi du Probintziak arazoa, oro har. Baina egon hor dago bizirik arazoa, eta hor dago gatazka.⁶²

Guzti horren azpian —edo nahi baldin bada ondorioan— zera dagoela uste dut: Probintziaren eta fraideen euskalduntzeko erabakiarekin batera ez landu izana benetako estrategiarik eta plangintzarik, erabaki horiek betetzeko eta ipinitako helburuak lortzeko. Balantze-daturik ezak berak horixe nabarmentzen du, benetako plangintzak emaitzen kontrola eskatzen baitu. Dena dela, plangintzari buruz beherago ihardungo dugu zabalago, aurrera Probintziaren proiektuari begira.

AURRERA BEGIRA: PROIEKTU PROBINTZIALA ETA EUSKARA

Hor dago, urratsez urrats eta gaingiroki marrazturik orain dela 125 urte berreraikitako Frantziakotarren Kantabria Probintzia honen bidea, euskal kulturari eta bereziki euskarari dagokionez. Esanda utzi beharra dago: euskarazko pastoraltzan lan handia egina duela horrek, baita kulturaren eta euskal kulturaren mailan ere fruitu onak eta garrantzizkoak eman dituztela Probintziako fraideek; baina bere nortasun kultural eta linguistiko berezia duen Herri honen araberako frantziakotar komunitate (probintziala) sortzea urruti xamar egon da luzaroan fraideen asmoetatik. Azken hogeitabost urteotan helburu horri begira agerturiko asmoak eta harturiko erabakiek ere zoritxarrez huts edo erdi-huts egin dute. Probintziaren egituraren aldetik, Euskal Herriaren barrutiarri egokituriko erakunde berezia beharrezkoa den ala oraingo Probintziaren lurraldearen bi eskualdeen bereizketa egokiagoa den arazoa azkenera-

ko utzirik, esan beharra dago, ez dugula Euskal Herriaren dinamika sozio-kultural eta linguistikoki dagokion frantziakotar komunitatea eta erakunde gorpuztea lortu. Baina azken hogeitabost urteotan egindako gogoeta eta harturiko erabakiak hor daude; eta horien gain aurrera begiratze-ko eta horiek nola burutu ikusteko unea dela esan daiteke, Probintziaren etorkizuneko proiektua aztertzen eta lantzen ari garen honetan.

Egingo ditudan iradokizunak oinarritzeko arrazoi antropologiko eta teologiko handiak ekarri beharrik ez dago hemen. Horiek 1979ko txostenean, Kapitulara aurkeztu zuten hartan, ondo agertuta daudela uste dut.⁶³

Bakarrik bi aipamen egin nahi ditut, gure bizitza arautzen duten dokumentuetatik hartuak: “Herrietan gero eta handiagoa denez, fedea tokian tokiko izakerara moldaturik bizi eta ospatzeko gogo, anaiek ere gogo onez eman bezate beren laguntza inkulturatze-lan hori bultzatzeko” (KK.JJ., 92,2,art).⁶⁴ Hemen inkulturazioa badirudi geure ebanjelizazio-la-

⁶² Onartu beharra dago hizkuntzen arteko gatazka. Horrela agertzen da hainbat dokumentu eta liburutan: *Conflictos culturales y comunidad cristiana* aipatua dugu gorago. Bertan Setienen hitzaldiaren titulua: “Comunidad cristiana y conflicto cultural”. Ideia berbera erabili zuen lehenagoko beste hitzaldi batean, (1979-XII-26), Gentzan egina: “Conflicto cultural y sus implicaciones eclesiales”. Gatazkari ihes egin gabe, horretan sartu eta hori bideratu beharra dagoela uste dut. Bestalde, horixe erakusten duela dirudi gaurko psikologiak ere, “gatazken konponbidea” bilatzen duenean, ez horien ezkutatzea. Beste hainbat titulu gogora genezake, antzeko titulua dutenak: Euskaltzaindia, *Conflicto lingüístico en Euskadi*, 1979, 225 orr.; Luis C-Núñez, *Oposición y defensa del euskera*, Txertoa, San Sebastián, 1977, 114. orr.; Eusko Jaurilaritza, *Euskararen borroka*, Gasteiz, 1983, 255 orr.

⁶³ Txosten hori baino urtebete lehenago argitaratu zuen Pedro Arrupek gutun bat Jesuiten lagundiarentzat inkulturazioari buruz: *Sobre la inculturación* (Carta del Padre General) (Documentos s.j. - 18 (14 de mayo 1978). Bertan jasotzen dira horrelako arrazoi antropologiko, teologiko, misiologiko eta etikoak. Vatikanoko II. Kontzilioaren ondoren egindako gogoetaren barruan dago gure kapituluko txostena, se-guruenik Arruperenean ere inspiratua.

⁶⁴ Gure Konstituzioek Ebanjelizazioari buruzko kapituluan (5.enean) egiten dute hitz inkulturazioari buruz (92. art, §2; 93. art, §2; 96. art., §1). Egokia litzateke IV. kapituluan ere aipatzea, hor deskribatzen baita fraideek munduan eta gizartean (eta beraz, herri eta kultura bakoitzean) egin behar duten biziera. Ikuspegi hori nabarmendu zuen gure Ministro jeneralak *Fraternitas* buletinaren 1995eko abendu-ko zenbakian, “Reflexiones del Ministro General” izeneko zutabetxoan. Dena dela, IV. kapituluan “minorizazioarekin” lotuta dauden hainbat gai daude nabarmenduta, berorien ondorioetan hurbilditiek gure gaiarekin (norberaren hizkuntz elkarteetan txertaturik hezi eta bizitzearekin) hurbilditiek lotuta daudenak: bakea (68. art.), zapalduen eskubideen defentsa (69. art.), gizon-emakumeak adiskidetzen saiatzea (70. art.), fraideen jarrera ekologikoa (71. art.).

nari begira ulertzen dela. Probintziako Estatutu Partikularrek beste ikuspegi antropologikotik ere sakontzen dute arrazoiketa: "Gogoan eduki bitez baita ere, lanean ari gareneko herrien proiektu sozio-kulturalak, izaera eta kultura, horrela Ebanjelioaren inkulturatzea eta bizi garen tokiko gizon-emakumeen zorian parte-hartzea egiazko bihur ditzagun" (EE.PP., 49 º2, c).

Probintziaren proiektua aztertzeko bi fitxa-sorta ditugu jasoa dagoeneko, hamar gai biltzen dituztenak; horietatik bat bakarrik ere ez dago Euskal Herrian txertatzeari eta "inkulturatzeari" eta Euskal Herriko fraideen euskalduntzeari buruz. Desagertu egin da ia hogeitabost urtean kapituluz kapitulu bizirik egon den gaia. Zergatik? Ez ote dira arazo Probintziaren proiektuari begira? Hasteko, zera proposatuko nuke, beraz: 1979ko Kapituluako "Por una inserción de la vida franciscana en Euskal Herria" txostena berreskuratzea, eta behar dituen eguneratze eta egokitzapen eta guzti, proiektu probintzialari begira egiten ari garen gogoeta eta proposamenetarako fitxa eta aztergai bihurtzea.⁶⁵ Gogoeta eta asmo haiek berreskuratzea izan daiteke guztiz egokia, aurrera begirako proiektua ondo bideratzeko.

Hemen jaulkiko ditudan gogoetak Euskal Herritik egingo ditut, Probintziaren eremu geografikoak zein izan beharko lukeen azkenerako utziz, hala ere. Dena

dela, Euskal Herria beronen osotasunean hartzen dut: Iparralde eta Hegoalde. Gogoeta eta iradokizun berdintsuak egin ahal dituzake beste edonork Gaztelatik (edo beste edozein Herritatik), bere burua gaztelautzat daukanak eta bere bizieran Gaztelan txertaturik eta kultureztaturik bizi denak.

PROIEKTU PROBINTZIALAREN FUNTSEZKO ZENTZUA

Etorkizuneko proiektu probintzialaren azkenburuko helburua ez da Kantabria Probintziaren iraupena, bere oraingo lurralde-eremuan ala bestelakoan, bere oraingo etxeekin eta egiturekin ala bestelakoekin. Hori ez da funtsezkoa, nire ustez. Funtsezko arazoa beste hau da: nola frantziskotar garenok eta etorkizuneko frantziskotar biziera bizi nahi izango duten kristauek biziko dugun (duten) fedezko esperientzia, frantziskotar anaiartean elkartuta, Herri jakin batean eta ingurune sozial eta kultural jakin batean txertatuta. Geure frantziskotar biziera geuretzat adierazkor eta gizartearentzat adierazgarri egitea dugu kontua, ez halako egitura historiko jakin bati irauten araztea.

Frantziskotar bizieraren eta presentziaren adierazgarritasunaren elementu funtsezkoa, berriz, inkulturazioa —bizi garen Herriaren kulturaren barneratzea— da. Adierarik gabea eta ulertezi-na, beraz adierazgarritasunik ga-

bea, da herri, kultura eta gizarte jakin batean barneratu gabeko fedezko biziera, eta ondorioz frantziskotar biziera —edonorentzat kultura arrotza adierazgarritasun pertsonalik gabea eta hizkuntza arrotza eta ezezaguna adierarik gabeak diren bezala—. Eta adierazgarritasunik ez badu frantziskotar anaiartearen bizitzak halako ingurune sozial eta kultural jakin batean, ez du merezi horren edonolako egitura probintzial edo bestelakori etorkizunik segurtatzen ibiltzeak. Ez du merezi, eta ez da egin behar: horrelako anaiarte frantziskotarra, kulturalki alienatua, zentzurik gabea izateaz gain, anti-testigantza izango litzatekeelako, bizi eta adierazi nahi duen Ebanjelioaren mezuari begira.

Entzun izan dugu behin baino gehiagotan, gure Probintziaren euskalduntasunak etorkizun iluna duela Euskal Herrian bertan, datozen fraidegai berriak ia denak ez-euskaldunak direlako. Horrek ezinezko bihurtuko omen du etorkizunean Frantziskotar Probintzia hau —Euskal Herrian biziko diren fraideen elkarte— euskalduna izatea. Hori horrela baldin bada, bitako bat egin beharko genuke egin: a) etsi, eta utzi Euskal Herrirako proiektu probintzialik egiteari —ez da nahitaezkoa Euskal Herrian edo beste edonon frantziskotar elkarterik izatea; b) kanpotik gureganana fraide frantziskotar izan nahian datozenei baldintza nahitaezkozkat ipini euskaraz ikastea

⁶⁵ Bi gai nagusi daude txosten horretan aztertuta, biak elkarrekin oso lotuak: Probintziaren lurraldearena eta Probintziaren hizkuntzarena. Horietako bakoitzak fitxa bana mereziko luke seguruenik Probintziaren proiektuaren inguruko gogoetari begira.

eta Euskal Herrian txertatzea hizkuntzaz eta kulturaz. Euskal Herrian frantziskotar anaiartea osatzera eta bizitzera datozen fraideak baldintza hori ez betetzera, hobe dute beren herrietara joatea, frantziskotar bizitzeko, nahiz eta horrek gure Probintziaren — anaiarte frantziskotar jakin honen— desagertzea ekarri.

FRANTZISKOTAR BIZIERA KULTUR ETA HIZKUNTZ KOMUNITATE MINORIZATUAN

Frantziskotar biziera ingurune kultural eta sozialera bertakotzea larriagoa eta eskakizun handiagokoa gertatzen da, giza komunitate horren kultura eta hizkuntza zapalduta, gutxituta eta minorizazio-egoeran daudenean, eta komunitate horrek bere hizkuntza eta kultura —identitatea— berreskuratzeko eta lantzeko ahaleginean diharduenean. Zilegi bekit A. Pedro Arrupek jesuiten ordenarentzat inkulturazioaren arazoaz idatzitako dokumentutik aipamentxo hau egitea: “Para una minoría la inculturación puede exigir incluso la identificación auténtica con los más desposeídos: a través de ellos la Iglesia sabrá en qué cultura se encarna y qué modalidad concreta debe revestir su obra de salvación y liberación. Será también la reparación de pasados excesos en la co-

laboración con los poderes coloniales”.⁶⁶ Hemen herri kolonizatuiei buruz dioena baliozkoa dela uste dut Euskal Herriarentzat ere.

Gure frantziskotar bizitzaren berrikuntzaren ikuspegitik aztertzen ari garen proiektu probintziolari begira, pobreen aldeko aukera egitea eta ingurune sozio-kulturalean barneratzea eta txertatzea elkarrekin lotuta doaz, gure Estatutu Partikularretako 18. &2 artikuluaen ildotik.⁶⁷ Pobrea —norbanakoa nahiz taldea edo giza komunitatea— ez da adiera ekonomiko eta indibidual hutsean ulertu behar; giza-dimentsio osoan hartzen dugunean pobretasuna, ezin ditugu ahaztu horren adiera soziala eta kulturala, kolektiboa eta egiturazkoa (estrukturala).⁶⁸ Horregatik kultura eta hizkuntzaren aldetik pobretuta —minorizatuta— dagoen talde sozialak edo Herriak frantziskotarron arreta berezia merezi du; eta ez bakarrik gure apostolutza nora gidatu jakiteko bakarrik, edota justiziaren izenean gizabanako edo gizatalde gutxituaren defentsa egiteko soilik, eta bai horrekin identifikatzeko ere, bereziki fraideok gizatalde edo giza komunitate horretakoak garenean: gure kasuan, Euskal Herrikoak. Identifikazio horretatik bakarrik bilatu ahal izango dugu gizartearen eta herriaren promozioa eta kulturazko askapena.

Alde horretatik argi dagoela uste dut: Gure Probintziari, Euskal Herrikoa den neurrian, Herri honen, eta berorren hizkuntza eta kultura minorizatuena, aukera egitea dagokio aurrerako proiektu probintziolari begira.

Badago beste motibaziorik ere, aukera hori zehaztu eta bideratzeko kontuan hartzekoa: Frantziskotarron bake-misioa, alegia. Euskal Herriak bizi duen biolentziaren sustrai nagusietako bat gatazka linguistiko-kulturalean datza; hau da, euskararen eta euskal kulturaren zapalkuntza eta minorizazio historikoan. Horregatik Euskal Herriaren baketze-ahaleginean funtsezkoa iruditzen zait horren identitate kulturala berreskuratu eta garatzearen dinamikan jartzea, bereziki euskararen berreskurapenaren eta normalkuntzaren prozesuan sartuz eta hori bultzatuz. Gatazkaren beldurrez eta anaiarteko “bakearean” izenean, ihes egin izan diogu fraideok oso sarritan euskararen zapalkuntzaren eta baztertzearen zuzengabekeriari... Gure etorkizuneko bizitza eta proiektua bide onetik bideratzeko beharrezkoa dugu Herri honek bizi duen hizkuntz gatazka asumitzea, eta gure etxeetan eta anaiarte probintzian horren konponbide egokia bilatzea, anaitasun eta karitatean, bai, baina zuzentasunean eta justizian. Eta justiziak

⁶⁶ *Aip. dok.*, 30. or.

⁶⁷ Honela dio paragrafo horrek bere osoan: “Anaiarte guztiek eduki bitzate kontuan honako irizpideak: gaurko munduaren arazoekiko sentiberatasuna, inguru sozio-kulturala, otoiizerako eta anai harremanetarako beta luzea hartzearen aukera egitearena, behartsuen alde lehenatasuneko aukera egitearena eta sekularitatearen baldintza berriak...”.

⁶⁸ 1993an Gasteizen egindako Europako Oinarriko Kristau Elkarten Nazioarteko Konferentzian: “La minorización colectiva es una forma de dominación y pobreza y, como tal, llamada de Dios a la solidaridad en favor de la liberación de los pueblos. Las Iglesias deben comprometerse en la construcción de la Europa de los pueblos” (*Los Pueblos y los Estados en la construcción de Europa: reflexión de las CCB*. Herria 2000 Eliza, 1993, 211-213).

hemen ere alderdi pobre eta minorizatuari lehentasuna ematea eskatzen du, horren aldeko aukera eginez.

EUSKARAREN OFIZIALTASUNAREN ETA ELEBITASUNAREN ONDORIOAK

Probintziak egina du euskararen ofizialtasunaren (ofizialkide-tasunaren) erabakia Probintziaren barruko bizitzarako eta funtzionamendurako. Horren ondorio guztiak ateratzeko edo praktikan ipintzeko daude, ordea, oraindik.

Hasteko, Probintziako dokumentu ofizial batzuk gaztelaniaz bakarrik etorri ohi zaizkigu; eta zer esanik ez, Ordenatik, Erromatik nahiz Probintzialen Konferentziatik datozkigunak.⁶⁹ Era berean, idazkaritzetako eta batzordeetako komunikazioak edo txostenak erdaraz bakarrik datozkigu sarritan. Izan daiteke horiek idatzi behar dituztenak euskaraz ez dakitelako, edota jatorrizko erdarazko dokumentua euskaratzeko ardurarik hartu ez delako. Probintziako kargudunek euskaraz ez jakitea euskararen ofizialtasuna benetan praktikan jartzeko eragozpena edo zailtasuna dela esan behar gutxienez.

Idazkaritza- eta batzorde-buruek euskaraz ez jakiteak eragotzi egiten du euskararen normal-kuntza eta horren ofizialtasuna benetan praktikan jartzea gure Probintzian, nahiz eta horien komunikazioak eta txostenak euskarazko itzulpen eta guzti eskaini. Izan ere, euskararen ofizialtasuna oso motz geratzen da, ko-

munikazio-hizkuntzat hartzen bada, bai, baina ez lan-hizkuntzat Probintziaren funtzionamenduko organo eta erakunde guztietan. Lehen aipatua dut, nola dokumentu ofizial edo ofizioso gehienetan, gaztelaniaz eta euskaraz datozkigunetan, ia beti oinarrian gaztelania dagoen eta euskarazko testua itzulpena izan ohi den. Ondo salaturik uzten du horrexek, euskara ez dela gehienetan dokumentu horiek produzitzen dituzten organo eta erakunde lan-hizkuntza.

Jakina, Probintziaren mailan nahiz etxeetan euskara lan-hizkuntza ere izango bada, bakoitzeko kargudunek edota idazkaritza edo batzordeetan parte hartzen dutenek euskaraz jakitea eskatzen du: erabiltzen diren gaiak euskaraz erabiltzeko eta formulatzeko gaitasuna edukitzea, kargudunen eta batzordetako edo bileretako gehienek aldetik behintzat, eta era pasiboan behintzat euskara jakitea, besteen aldetik, hau da, euskara mintzatua nahiz idatzia ulertzeko beste ezagutzea. Bestela euskarak ez dauka funtzionatzerik lan-hizkuntza gisa, eta komunikazio-hizkuntza gisa erabiltzen bada ere, itzulpenaren bidez izango da gehienetan. Horrela nekez burutuko du Probintziak euskararen normal-kuntza bere bizitzan.

Ofizialtasunaren ondorioa da Probintzia elebiduna izatea; baina hori ez dago batere argi gure

"Es necesario y urgente una planificación del apostolado especializado en vascuence, sirviéndose de este ancestral instrumento cultural para penetrar en las masas, y no dejando que la lengua vasca sirva sólo para un desarrollo de cultura laical".

⁶⁹ Iruditzen zait justiziazkoa litzatekeela Ordenako eta bereziki Penintsulako Probintzialen Konferentziaren dokumentuetan euskara komunikazio-hizkuntza izatea, gure Probintziari begira: hau da, euskarazko itzulpen eta guzti banatzea gure etxeetara. Horretarako itzulpen-zerbitzua ez luke Probintziak bakarrik jarri eta ordaindu beharko, Ordenak edota Konferentziak baizik. Euskarari buruz esandakoak berdin balio du beste hizkuntzentzat ere, bereziki galiziera eta katalanarentzat.

Probintziaren kasuan, fraideentzako elebidun izateko eskabidea —gaztelania jakiteaz gain euskaldun osoak izatea— Euskal Herrian bizi direnentzat edo “euskal eskualdekoentzat” bakarrik baita, Kapituluetakoa erabakien eta Estatutu Partikularretako 5 & 2 artikulua araberak; horrek kontradikzio handiak ekarriko dizkigu gure Probintziaren euskalduntzeari begira.⁷⁰

Bestalde, soziolinguistikak garbi erakusten du elebitasun sozial osorik ez dela gertatzen inongo gizartetan; horregatik elebitasun soziala —koletiboa— hizkuntz “politikaren” helburutzat jartzea nolabait kontradikziozkoa da. Are ezinezkoagoa da elebitasun soziala, gizarte edo giza taldeko kide guztiak eta bakoitza elebidun izatea lortzen ez den bitartean: hau da, horiek bi hizkuntzak ezagutzen ez badituzte. Baina bi hizkuntzen artean orekarik ez dagoenean eta horietako bat gutxituta edo minorizata dagoenean, elebitasun soziala nahiz pertsonala helburutzat jartzea faltsua da eta praktikan ezinezkoa gertatzen da hori lortzea, hizkuntza minorizatuaren berreskurapen osoa eta normalkuntza benetan lortzea baldin bada kontua. Horregatik Probintzian —Euskal Herrian edo eus-

kal eskualdean— euskararen normalkuntza —ezagutzen eta erabileran— lortu nahi badugu, bertako fraide guztiak euskaldun osoak izatea lortzeaz gain, euskararen aldeko diskriminazio positibo garrantzizkoa beharko da eraman aurrera Probintziaren aldetik.

Garbi dago, nere ustez, Probintziak ez duela inola ere elebitasunaren helburua lortu.⁷¹ Goian aipaturiko itzulpen sistema ia beti norabide edo direkzio bakarrekoaz gain, Probintziako bilerak ia erabat gaztelaniaz izaten dira, gaiak tratatzen eta erabakitzen direnean, nahiz eta liturgian eta euskarak leku adierazgarria eduki, eta elkarrizketa informal eta harreman pertsonaletan batzutan euskara izan nagusi. Gauza beretsua gertatzen da Probintziako organo nagusien, idazkaritzen eta batzordeen bitartean. Ozenki esan beharra dago, guztizko diglosian bizi garela Euskal Herriko fraide euskaldunok Probintzian eta sarritan gure etxeetan. Eta horrela jarraituko dugu, bestelako neurriak hartzen ez diren bitartean; horregatik garrantzizkoa deritzat proiektu probintzialari begira, horretaz gogoa eta sakon eta zabala egiteari eta neurriak hartzeari.

EUSKALDUNTZE-PLANGINTZA EGIN BEHARRA

Neurri horietako bat eta aurrena, fraideak euskalduntzeko —Euskal Herriko fraide guztiak euskaldun oso bihurtzeko— erabakia, hainbat bider Kapitulu probintzialek errepikatua eta Estatutu Partikularretan jasota dagoena, benetan betetzea da. Horretara iristeko, ordea, plangintza bat egin beharra dagoela uste dut, fraide guztien borondate onean eta ahaleginean oinarritua. Azken 25 urteotan fraideen euskalduntzeari buruzko asmoen eta erabakien ondorioen balantzea egin eta harturiko asmo eta erabakiak helburura ez direla iritsi seinalatzean, plangintzarik ezaren arrazoia azpimarratu dut gogo.

Hizkuntz plangintzaren kontzeptua oso zabaldua eta onartua dago soziolinguisten artean eta hizkuntz politikaz dihardutenen artean, bereziki hizkuntza minorizatuaren berreskurapenaren eta horren erabilera soziala normaltzearen arazoa dagoenean. Hizkuntz minorizatuaren berreskurapenaren eta erabilera sozialaren normalkuntzaren prozesua programatzea eta gidatzea esan nahi du, hain zuzen ere, kasu horretan hizkuntz plangintzak.⁷²

⁷⁰ Hemen ez gara sartuko Probintziaren banaketaren edo eskualdekatzearen arazoa eztabaidatzen, baina garbi dago hori guztiz lotuta dagoela euskararen ofizialtasuna eta Probintziaren elebitasuna benetan praktikan jartzerakoan.

⁷¹ Oraindik ere baliozkoa ote den nago 1979ko kapitulu txosten behin eta berriro aipatuak dioena (28. or.) “... el bilingüismo todavía tiene mucho que avanzar para que sea real, y no quede en pura letra. Si no se ha logrado todavía en parte será por falta de conciencia o por desidia, pero también por las dificultades prácticas objetivas. No se puede olvidar que los cambios socio-lingüísticos ocurren lentamente.”

⁷² Horrelako egoeretan plangintza-politikaren bidez iritsi dira Herriak beren hizkuntza berreskuratzea eta normaltzera (Israelen, Finlandian, Quebecken). Iaztik hasita Katalunian katalanaren normalkuntzarako xede handitako *plangintza orokorra* daukate indarrean ipinita; Euskal Herrian aspalditik ari dira euskalgintzako erakunde sozialak horrelako *plangintza orokorra* eskatzen, eta badirudi Gasteizko gobernuaren eta erakunde herritarren aldetik bide horretatik urrats erabakigarriak egiteko daudela une honetan. Euskal Herriko Elizak ere, dinamika horretan sartuz, bere bizitzarako eta ihardunbiderako horrelako plangintza beharko du egin; Euskal Herriko erlijioso-ordenei, eta bereziki frantziskotarroi, dagokigu geure aldetik plangintzaren filosofia hori asumitzea eta praktikan ipintzea.

Bi alde nagusi ditu horrelako prozesuak, euskararen egoeraren kasuan behintzat: 1) Euskararen ezagutza (berreskurapen pertsonala) zabaltzea; b) Euskararen erabilera soziala (berreskurapen soziala) normaltzea.

Edozein plangintzak bezala, euskararen normalkuntzarako plangintzak ere bost kapitulu nagusi ditu:

- **Egoera eta dinamikak aztertzea**
- **Helburuak zehaztea**
- **Epeak ezarri eta urratsak markatzea**
- **Baliabideak ipintzea**
- **Emaitzak kontrolatzea**

Ez gara horietako bakoitzaren esanahia azaltzen hasiko, edota urrats horietako bakoitzak gure Probintziaren kasuan dituen inplikazioak aztertzen. Hala ere, euskalduntzearen helburuei eta baliabideei —“helpideei”— buruz zerbait argitu beharra dagoela uste dut, gaurko gure Probintziaren egoera kontuan izanik. Hasteko, plangintzaren egiteko behinenetako bat helburuak zehaztea dugu: noraino iritsi nahi dugun Probintzian euskararen ezagutzan eta erabileran.

Euskararen ezagutza

Kapituluen erabakietan edo gomendioetan, eta gero Estatutu Partikularretan, nahikoa argi dago, egon, euskararen ezagutzaren helburua: Euskal Herrian bizi diren fraide guztiek euskara jakitea, ulertzeko, mintzatzeko, irakurtzeko eta idazteko moduan.

Jakina, horietako bakoitzean ezagutza-maila oso ezberdinak egon daitezke, eta fraide bataren eta bestearen gaitasuna aski ezberdina izan daiteke. Gutxieneko bat markatu beharko litzateke, bakoitzean.

Ezagutzari dagokionez, errealistak izan behar dugu, jakina. Gure Probintzia eta bertako fraideok ez gaude orain 25 urteko egoeran, adinari dagokionez batez ere. Eta ezaguna da zein garrantzi handia duen adinak, edozein hizkuntza ikastekoan. Egia esan, ezinezkoa iruditzen zait Kapituluetan eta Estatutu Partikularretan euskararen ezagutzari begira ipinitako helburua betetzea une honetan, fraideon adin ertaina hain gora igo denean. Baina horrek zera esan nahi du, 25 urte horietan errepikaturiko “printzipioaren” —Euskal Herrian fraide guztiak euskaldun “osoak” izatearen— izpirituari eutsiz, egokitu egin behar dugula hori, gaurko eta datozen urtetako gure egoeraren arabera. Eta fraide heldu guztientzat aplikaezina baldin bada helburu hori, jakin beharko genuke zenbateraino bete eta burutu dezakegun, eta zein kargutarako eta noiztik eta zein neurritan izango den beharrezkoa aurrerantzean euskaraz jakitea Probintzian. Bestalde, emandako printzipioak arau praktikoko guztiz baliozkoa izan beharko luke fraide berri eta fraidegaiantzat.

Euskararen erabilera

Probintzian euskararen erabilera “sozialean” zein helburutara

iritsi behar dugun gutxiago dago oraindik zehaztuta, edo zehaztutako gutxiago dago erabileraren helburuei begira, goian aztertutako izan ditugun gogoeta, asmo eta erabakietan. Helburuok markatuta ere ez daudela uste dut, dokumentu ofizialetan bi hizkuntzak erabiltzearena besterik; etxeetako ekitaldi komunitarioetan eta bizitza arruntean, Probintziako idazkaritza eta batzordeetan, kapituluetan eta bestelako bilera probintzialetan: horietan guztietan ez dago inolako erabilera helbururik ipinita. Gauza bat aski argi dagoela uste dut, hala ere, Probintziak azken hogeitabost —nahi baldin bada, azken 50 urteotan— egin duen gogoetan arazo horri buruz: Fraideok Euskal Herrian —bertako ingurune soziokulturalean— barneratu (txertatu) beharrendu ondorioa dela euskalduntzea. Horregatik euskararen erabileraren (eta ezagutzaren) arazoa ez da gizarte-harremanei eta pastoraltzari begira bakarrik ikustekoa, eta bai euskara Probintzian eta etxeetan ofizialki erabiltzeari eta fraideok euskaraz bizi ahal izateari begira ere. **Euskaraz bizitzea**: horra euskararen erabilerari buruzko plangintzaren helburua; edo gutxienez fraideari Euskal Herrian euskaraz bizitzeko —eta normaltasun osoz bizitzeko— eskubidea aitortu ezezik, horretarako baliabideak ipintzea.

Ikuspegi horrek zenbait ondorio praktikoko dakar euskalduntzearen eta euskararen erabilera normaltzeko erabakiei eta plangintzari begira:

- a) Euskararen erabilera ofiziala normaltzea Probintzian eta etxeetan;
- b) Fraideen bilera eta ekitaldi kolektiboetan euskararen erabilera normaltzea;
- c) Gure etxeetan euskaraz bizitzeko baliabideak ipintzea;
- d) *Euskaraz bizitzeko Probintziaren aldetik materialak lantzea*

Euskararen erabilera ofiziala. Horri buruz hainbat gauza adierazita edo iradokita geratu da gorago. Ez daukat zalantzarik konbikzio eta zorroztasun handiagorekin bete eta zabaldu behar dela Probintzian horri buruzko erabakia; gainera euskararen normaltzeak Probintziako eta etxeetako dokumentu ofizialak jatorriz euskaraz sortzea ere normala izatea ekarri beharko luke. Bestalde, Probintziako eta etxeetako bilera formaletan —komunitario edota instituzionaletan— euskararen ofizialtasunaren irizpidea betetzeko eta euskara normaltasunez erabiltzeko bideak ireki behar dira, baliabide praktikoak eta eraginkorrak ipini (aldibereko itzulpena? bilera ezberdinak euskaraz edo erdaraz nahi dutenentzat?).

Fraideen bilerak eta ekitaldi kolektiboak. Fraideentzako antolatzen diren bilera eta ekitaldi kolektiboetan (gogo-ihardunak, ikastaroak, mintegiak, hezkuntza iraunkorreko ekitaldiak, eta bestelakoetan) euskara normaltasunez (lehentasunez?) erabiltzeko neurriak hartu eta baliabideak ipini behar dira. Erdarazkoen parean euskarazkoak antolatzea izan daiteke bide bat —badakigu oso gutxi antolatzen direla horrelakoak euskara hutsez; agian eskabiderik ez dagoelako?—; garbi dago, hala ere, elebitasun orekatuaren aplikazioa ezinezkoa gertatzen dela horrelako ekitaldietan orain arte, eta be-

ti euskara ateratzen dela galtzaille. Hezkuntza iraunkorreko ekitaldiak guztiz garrantzizkotzat jo izan dira gure Probintzian, eta garrantzizkoak beharko lukete izan euskalduntzearen arazoari eta euskalduntzeari begira ere; zoritxarrez, denak erdaraz izan dira funtsean eta gehienbat.⁷³ Egia da horrelako ekitaldietako *liturgia eta otoitzaldietan euskarak* lekurik izan ohi duela, gehienbat kantu eta otoitz-formuletan, gutxiago irakurgaietan eta oso gutxi mezu-komunikazio berrietan. Baina ekitaldietako azterketa-gaien komunikazio-, informazio-, eta eztabaida-bileretan euskarak ez du ia lekurik izaten, edo oso txikia izaten du; eta sartzen denean, behartuta edo sartu ohi da, normaltasunik gabe eta dinamika “normala” hautsiz edo. Dinamika hori hausteko, txostenetatik eta gaien hasierako azalpenetatik hasi behar da euskara erabiltzen: seguruenik lehentasuna emanez gainera. Eta oraingoz normaltasun osoz erabiltzea zaila gertatzen bada, behartu egin beharko da komunikazio-situazioa, bestelako baliabide eta tresnak erabiliz: aldibereko itzulpena, bi hizkuntzetan gaiak azaltzea, edo beste.

Gure etxeetan euskaraz bizitzeko baliabideak. Norberaren eguneroko bizitzan eta etxeko harreman informaletan euskararen erabilera planifikatzea zaila edo ezinezkoa da, bakoitzak erabakitzen duelako pertsonalki

Zalantzarik gabe 1976ko Kapituluak erabakigarria izan zen gure Probintzian euskarari dagokionez: gaztelaniarekin batera euskara ere ofizialtzat berrestez gain, fraideen aldetik euskara lantzeko printzipioa ipini zuen.

⁷³ Liebanako hezkuntza iraunkorreko ekitaldiek, oro har, bestelako urruntasun-girorik ere ipini dute euskararekiko eta euskal arazoekiko. Euskal Herritik urrun egiteaz gain, hor eskaintako hitzaldiek eta elkarrizketa-gaiek lotura gutxi eduki izan dute zuzenean behintzat Euskal Herrian bizi ditugun hainbat arazo sozial, kultural, erlijiozko eta politikoekin.

zein hizkuntzatan bizi: informazioa jaso, irakurri, mintzatu, idatzi, otoitz egin, etab.⁷⁴ Hala ere, kontzientizazio- edo jaberazpen- eta pertsuasio-lana egin beharra dago, euskararen erabilera inork erasotzat edo lekuz kanpokotzat har ez dezan, eta horren erabilera bultzatzeko.

Hasteko, badaude gure etxeetan hartzeko neurriak eta ipintzeko baliabideak, gaur egun eta maila batez behintzat fraideei etxean euskaraz bizitzea ahalbidertzeko; lau aipatuko ditut hemen: b) Liburutegia euskarazko liburuez eta aldizkarietaz hornitzea —euskarazko produkzioa oso aberatsa ez baldin bada ere, aski garrantzizkoa eta kontutan hartzekoa da gaur egun); b) Disko, bideo eta multimediazko bestelako kultur produktuetaz etxea hornitzean, euskarazkoei garrantzi berezia eta lehentasuna ematea; c) Euskarazko egunkaria(k) eskuratzea eta bestelako informazio idatzia euskaraz ere eskaintzea; d) Euskarazko telebista beti ikusi ahal izateko modua ipintzea.

Euskaraz bizitzeko materialak sortu eta zabaltzea. Zoritxarrez, erlijiozko produkzioa oso eskasa da gaur egun euskaraz, batez ere bestelako alorretakoa-rekin alderatzen badugu. Hori

izan daiteke guztion erantzukizuna, geure kristau-bizitzari eta apostolutzari begira. Baina gure Probintziari bereziki dagokio fraideon bizitza erlijiozkoa euskaraz bizitzeko eta zabaltzeko materialak sortzea (itzultzea, egokitzea), produzitzea eta zabaltzea: geure Ordenako oinarriko dokumentuak, irakurgaiak eta hezkuntza iraunkorrerako materialak, otoitzerako eta liturgiarako materialak, apostoluzalenerako tresnak. Gure Probintziaren historian euskararen baztertzearen nahiz aintzakotzat hartzeko modu eta neurriaren seinale nagusietako bat horrelako materialak sortzeko ahaleginen edo ahaleginik ezean dagoela uste dut. Ezaguna da gure funtsezko dokumentuak latinez edo gaztelaniaz bakarrik eduki izan ditugula ia oraintxe arte, eta bestelako euskarazko produkzioa, geure erlijioso- eta frantziskotar-bizitzari begirakoa, oso eskasa izan dela. Egia da, azken urteotan kontuan hartzeko lana egin da Probintzian, eta egiten ari da. Baina oraindik motz geratzen dela uste dut.

Erantzukizuna ez da noski Probintziako arduradunena bakarrik, eta bai fraide euskaldun guztiona ere. Baina Probintziak, bere aurrerako proiektuan, plan zehatzago bat egin beharko luke

horri begira ere, 1982ko Kapituluaren erabakitakoaren bidetik⁷⁵, eta horretarako ipini beharreko inbertsioak ere ipiniz.⁷⁶

GOGOETA LABURRA PROBINTZIAREN EREMU GEOGRAFIKOARI BURUZ

Probintziaren proiektuari begira hartu eta aztertu ditugun “fitxak” eta gaiak gogoan baditugu, badirudi fraideon “basearen” azterketa eta eztabaida guzti horretatik kanpo geratzen dela Probintziaren eremu geografikoaren arazoa. Hala ere, Probintziaren sorrera-sorreratik egon da arazo hori, gorago azpimarratua dugu-

**Badirudi Kapituluak
kezkatuta dagoela,
aurreko bi Kapituluetan
hartutako erabakiek ez
dutelako fruitu handirik
eman nonbait.**

⁷⁴ Seguruenik ez da egokia garai bateko kolegioko neurrietara itzultzea, non halako ordu edo solasaldi jakinetan euskaraz —ala erdaraz— mintzatzera behartzen baitzituzten (gintuzten) mutikoak.

⁷⁵ 26, d) akordioa, idazlan honetan gorago ere aipatua: “Anaidiei, bakar eta elkarte otoitzerako euskarazko material aberatsago eta ugariegoa eskaintzeko behar diren urratsak eman ditzala”.

⁷⁶ Inbertsioei dagokienez, beste zerbait esan beharrekoa dela uste dut, goian beste alde batetik adierazita geratu dena: Penintsulako Frantziskotar Probintziaren Konferentziaren barruan hainbat inbertsio egiten da, frantziskotartasunaren iturri eta dokumentu historikoak eta bestelako materialak gaztelaniaz argitaratzeko; eta gure Probintziak ere parte hartzen horietan. Garaia dela uste dut Konferentziaren ekarpen ekonomikoa eskatzeko, euskaraz ere (eta Penintsulako beste hizkuntzetan) horrelako materialak argitaratzeko, kontuan izanda bereziki gaztelania bakarrik ez dela ofiziala Konferentziaren barrutian.

nez, eta 1979ko Kapituluak guztiz lotuta aztertu zituen fraideon (Probintziaren) euskalduntzearen eta Probintziaren eremu geografikoaren (bitan banatzearen ala ez banatzearen) arazoak. Ezaguna da, bi Probintzian ez banatzearena, baina bi eskualde eratzea izan zela erabakia: eskualde euskalduna (Hego Euskal Herriko lau herrialdeak) eta eskualde erdalduna (Espainiako beste lurraldeak).⁷⁷

Adierazita utzi dut gorago, zer-nolako zailtasunak (ezintasunak?) eta desegokitasunak sortzen dituen banaketa eta funtzionamendu horrek, Probintziako euskalduntzeari eta euskararen erabilerari dagokionez. Proiektu probintzialari begira badirudi ez direla erabaki horiek eztabaidatzen, nahiz eta hartu ziren unean zalantzaz eta nolabait behin-behingo bezala hartuak izan; izan ere, aurrera begira Probintziaren batasun egoki eta zuzenari buruz fraideek agertuko zuten elkar ulertzeko eta errespetatzeko borondate onari, eta batasun horretan beste zenbait baliori — euskalduntzeari tartean — eusteko fraide guztiek egingo zuten ahaleginari baldintzatuta hartu zuen Kapituluak erabaki hura.⁷⁸

Eskualdekatze horren orain arteko funtzionalitateaz eta funtzionamenduaz gain, bestelako datu berri garrantzizkoak ditu Probintziak inguruan eta tartean, mundu politikoan, sozialean eta kulturean gertatuak: Komunitate autonomoen finkatzea, euskararen ofizialtasuna Euskal Herriko parte handi batean eta horren berreskurapen-prozesuaren aurrerapena, Europaren batasuna eta estatuen arteko mugen desagertzea (Hego Euskal Herriaren eta Iparraldearen artekoa bereziki).

Datu horiek guztiak zinez kontuan hartzekoak direla uste dut gure proiektu probintzian. Bestalde, ezaguna da Frantziako frantziskotar probintziek bere bateratze eta batze-prozesua darumatela aurrera, eta laster bi probintzian batuko direla denak. Prozesu horretatik kanpora utzi nahi izan dute Ipar Euskal Herria, Donapaleuko etxea gure Probintziak har dezan eskatuz. Ezaguna da gure Definitorio probintzialak eman duen azken erantzuna: Donapaleuko etxearen ardura ezin duela hartu, baina irekirik utzita Iparraldeko beste nonbait etxeren bat irekitzeko ahalbidea. Printzipiozko erabaki

garrantzizkoa dela uste dut; eta hori eztabaidatzen hasi gabe ere, urrats konkretuak egitea eskatzen ditu horrek, orain bertan eta proiektu probintzialari begira. Gertatzez, berriz, datu konkretu bakarra Donapaleuko etxea da oraingoz.

Pentsa daiteke hori guztia irreal gertatzen dela gure Probintziako fraideon egoera eta adina ezagutuz. Baina horrek ez du ukatzen ez zalantza ipintzen gorago "Proiektu probintzialaren funtsezko zentzua" atalean esandakoa. Eta beraz, Probintziaren eremu geografikoaren arazoa aztertzea da, esandako datuak kontutan edukiz.

*Paulo Agirrebaltzategi
Donostia. 1996*



⁷⁷ Bi eskualdeen araberako funtzionamendua oso murrizta da (garai bateko bi seminarioak, alorren bateko bi batzorde ezberdinak, hauteskundeetarako hautagaien eta hautesleen banaketa); gainerantzean erabat egitura batuan funtzionatzen du Probintziak. Bi eskualdeen funtzionamendu murriztuz hori lehenagokoa izanik, 1979ko kapituluak berretsi eta garatu zuen (ik. *1979ko Kapituluak erabaki eta konklusioak*, 2. atala: "Eskualde desberdinen gaurko eskakizunetara Probintzia egokitzeari buruz", eta bereziki a) zatia: "Probintziaren konstituzioa" izenekoa, 8, 9 eta 10. erabakiak).

⁷⁸ Batasunaren irizpidea agertu ondoren (8. erabakiko lehen paragrafoan) berehala dio bigarren paragrafoan 1979ko Kapituluak: "Baina, aldi berean, Kapituluak baieztatu du, ezin dezakeela Probintziak arin arin bere egungo batasuna seriozki eztabaidatzea ukatu. Izan ere, soluzio idealak zerbait erabat kontrarioa adierazten badu ee, ezinbesteko baldintzak egiaztatu behar dira, hoberena onaren etsaia izan ez dadin".

Gogoratzekoa da 1980aren hasieran egindako kapituluonodoko batzarrea, goragoko ohar batean ere aipatu duguna, non bi eskualdetako fraideek, bakoitzeko beren aldetik egin zuten gogoeta eta azaldu zituzten kezka eta kexuak bestekoei buruz, gero denak aurrez aurre jartzeko, guztien borondate onaren eta argitasunaren agergerri (Ik. "El regionalismo dentro de la Provincia", aipaturiko dokumentua).